



Urteurren ospakizuna

Josefina Arregi klinikaren 25. urteurren ospakizunak igandean hasiko dira / 2-4



Igandean Sakanako lasterketa Etxarrin

Txikien probak 11:00etan hasiko dira eta proba nagusia 12:00etan / 17



Justizia egarriz

Epaia salatzeke Iruñera deitu dute / 7

Ondarearen bideak ibiltzera abiatuko da Aritz Ganboa de Migel Arruazutik larunbat goizean / 6

Irañetako udaletxean mikologia eta botanika erakusketa ikusteko aukera igandean / 8

Iturmendiko udazkeneko azokak eskaintza zabala ekarriko du larunbatean / 8

Bihar, Etxarri Aranatzan, XIII. Uharteko Rollerski Saria jokatu da goizeko 11:00etatik aurrera / 19

Artebide elkartearen Altsasuko VIII. Arte Azoka lortia kultur gunean ikusgai dago, azaroaren 2ra arte / 23



Angel Gardachal, klinikako kudeatzailea, Joseba Arregi, patronatuko presidentea, eta Patxi Goikoetxea, lagunen elkartekoa.

Klinikarena, ospatzeko moduko ibilbidea

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoak 25 urte bete ditu. Erreferentziazko zentroa da psikogeriatria nahasmenduak dituzten adinekoak artatzen, bereziki, kognizio narriadura edo demenzia

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Zaila izanen da Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoarekin zuzeneko edo zeharkako harremana ez duen sakandarririk opatzea. 25 urteko ibilbidean osasun baliabide hori erabili dutenak sakandar asko izan baitira. Han ezgaitasuna edo baliaezintasun iraunkorra sortzen dituzten buru nahasmendu organikoak diagnostikatu, tratatu eta errehabilitatzen dituzte. Alzheimer gaitzaren berri berak zabaldu zuen gure artean. Baita demenziei buruzko ezagutza eta sentiberatasuna ere. Adinekoen nahasmendu psikogeriatrikoak artatzen dituzte klinikak. Baina ez da mugatzen demenzia edo bestelako patologia psikiatrikoak dituzten adinekoen bizi-kalitatea hobetzeraz, baizik eta izaera asistentzialeko eta sozialeko proiektuak ere sustatzen ditu pertsona horien zaintzaile nagusiendako.

Klinikak ematen duen izaera sanitarioko zerbitzuaren barnean,

diziplina anitzeko abordatzea egiten da demenziak edo bestelako patologia psikiatrikoak dituzten adinekoak artatzeko; izan ere, eritasunaren agerpenaren adinagatik eta horren bilakaera eta pronostikoagatik, maila goreneko arreta behar izaten dute. Zeregin horretan aritzen dira klinikak eta bere baliabideetakoren bat erabiltzen

duen gaixoen euren bizi kalitatea hobetzen dute.

Sorreraz

Josefina Arregi eta Felipe Lezea ezkondu zuten. Aurrenari Alzheimer gaitzak jo eta gaixotu egin zen. 80. hamarkada bukatu eta 90. hamarkada hasieran Alzheimer gaixotasuna ez zegoen gaur egun bezain ikertua eta tratamenduak ez ziren egungoak bezain "atseginak" izaten: batzuk lotu egiten zituzten, edo medikazioak "itxaltzen" zituen. Senarrak gaizki pasa zuen. Klinikako Lagunen Elkarteko (KLE) kide Genaro Paniagua Razkinen azalpenak dira horiek.

Emaztearen diagnostikoa zuela, Lezea "Vicente Madozek sortutako eta adimen-osasuna lantzen duen Argibide fundazioarekin harremanetan jarri zen, Altsasun klinika bat egin eta gaixotasun horiei nolabait aurre egiteko, artatzeko". Hala gogoratu digu Joseba Arregi Pabolletek, Lezearen ilobak eta klinika-

ko fundazioeko patronatuko presidentea. Paniaguak gaineratu duenez, "Lezea enpresari garrantzitsua zen, zerbait egitea erabaki eta klinika jarri zuen martxan. Madoz medikuarekin diseinu guztia egin zuten. Lezeak dirua jarri, fundazioa sortu eta klinika egin zuten".

Paniaguak gaineratu duenez, "guretako garrantzitsuena klinikaren estatutuak dira. Hor oso-oso argi azaltzen da gaixoa nola tratatu behar da: ez lotu, medikazioa neurtu... Klinikara iristen den jendearen hobekuntza bilatzen da". Hala, 25 urteko ibilbidean klinikak demenzia-gatik edo bestelako patologien-gatik gaixotutako 7.000 pertsona artatu ditu eta kasuen % 92an helburua lortu da. "Klinikaren arrakasta ikaragarri handia da, erreferentzia bat da estatuan eta Europan" eta horretan zeresan handia dute klinikak lan egiten duten profesional "handiak".

Arregik ere klinikaren arima diren langileen lana nabarmendu zuen, emakumezkoak gehienak, "azpimarratzeko da euren lana 25 urtetan zehar. Euren lana babestu eta azpimarratu behar dugu. Eta zaindu etorkizunerako". Langileen lanaren aitortza egiten dute ere familia erabiltzaileek. Izan ere, klinikako langileendako "gure unitate eta programetara etortzen diren pertsonen zutabe nagusietako bat familiak dira. Horregatik, prozesu guztian informatzen eta laguntzen saiatzen gara".

Plana

Estrategikoa, 2022ra arteko prestatzen ari dira. Bi ardatz ditu: "klinikaren ekonomia eta finantza jasangarritasuna lortzea kudeaketa profesionalizatuz. Horrela, orain arte bezala, bilintxi-balantza, ez ibiltzeko". Atzena, "langileriaren giro eta egonkortasunean eragitea, haien egoera hobetzeko".

Datuak

7.000

Eta gehiago dira klinikatik 25 urteetan pasa diren pertsonak.

250-300

Urtero ospitalizatutakoak.

5

Patronoak: familia, Altsasuko alkatea, Mank-eko presidentea eta bi pertsona gehiago.

3


Medikuak.

52

Klinikako gainontzeko langileak.

Kronologia laburra


- **1993-03-08** Felipe Lezeak notariotzan fundazioa sortu zuen.
- **1994-10-16** Klinika psikogeriatrikoa mustutzeko ate irekien jardunaldia egin zen ferien asteburuan. 250 milioi pezetako inbertsioa (1,5 milioi euro) egin zuen.
- **1995-02-15** Adinduei buruzko hitzaldi zikloa antolatu zuten klinikak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Argibide fundazioak.
- **1995-06-07** Josefina Arregi klinika ofizialki mustu zuten.
- **1995-06-29** Josefina Arregi klinikak Nafarroako Gobernuaren 70 milioi pezetako (420.708,47 euro) dirulaguntza jaso zuen. Patronatuen aurretiazko kalkuluen arabera, urteroko aurrekontua 100 milioi eurokoa litzateke.




EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA


egoki@ventanasegoki.com




Etxe pasiboetarako egokia
5.9000



Beirak lehorrean jarrita



Isolamendu nukleo indartsua



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Klinikan dagoen Felipe Lezearen koadroa. Behean, Josefina Arregirena.

Sortzailearen kontakizuna, gaitza gertutik bizi eta ekin

Duela 25 urte mustu zenean, Felipe Lezeak bizi izandakoen inguruan esandakoak jaso ditugu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Felipe Lezeak berak duela 25 urte gaztigatu zuen Alzheimer kasuak gero eta ugariagoak zirela gure gizartean, "gaiarekin zeregin handia izanen da" jaso zuen Euskaldunon Egunkariak. Gaixotasuna ezezaguna zenaren seinale, Lezeak hari buruzko azalpenak eman behar izan zituen 1994an. Gaitzarekin bizi izandakoaren lekukotza ere eman zuen: "Hasieran oso latza da, zer den jabetzen zaren arte". Josefina Arregi Iruñeko eguneko zentro batean uzten zuen egunero. "Ez nuen uste eguneko zentroak horrenbesteko onura ekarriko zigunik. Goizero joaten ginen eta arratsaldean itzuli. Etxera ekartzen nuenean afaldu eta lo egiteko prest zegoen, eta hori asko zen. Nik, neure aldetik, atsedean hartze tenorea nuen, lantegira joateko. Arrebak asko lagundu zidan baina, hala ere, eguneko zentrorra eramateko aukerarik izan ez bagenu, ezinezkoa izango zatekeen".

Gizarte Segurantzak 1994an ez zuen Alzheimer gaitzarendako espezializatutako zentrorik. Euskaldunon Egunkariari adierazi zionez, "geu, geure aldetik, eskualde honetako gaixoak laguntzen saiatuko gara". 1990ean hasi zen klinika egiteko ideiarekin. Hasieratik garbi zuen klinikak tratamenduaz aparte ikerketa egin eta gaixoen senideendako hitzaldiak eman behar zituela. Lezeak babes handia opatu zuen Argibidea Alzheimer Gaixoen Senideen Elkartearen eta eguneko

zentroan. Lezeak argi zuen klinikako langileen ezaugarriak zein izan behar zuten: "hasieratik ongi funtzionatzea nahi dugu, garrantzitsua da langileak espezializatuta egotea. Bokazioa duen jendea behar da, gaixo hauek ez baitira hala-holakoak; dedikazio eta pazientzia handia izan behar dute". Hasierako pausoak 20 bat erizain eta zaintzailerekin, sukaldari eta garbitzailerekin ematea aurreikusia zuten. Ate irekien jardunaldia egin zenerako zuzendaria, medikua, gizarte langilea eta psikiatra 1995erako dena prestatzen ari ziren. Lezeari gustatuko litzaioke bere emazteak klinika mustutzea, ezin izan zen, baina eraikinak bere izena hartu zuen, Josefina Arregi.



Dantza eta musika ikuskizun ahaztezina

Josefina Arregi klinikaren 25. urteurrena ospatzeko kontzertu berezia egingen dute Altsasuko Burunda frontoian igandean, 11:30ean. Ibarreko hainbat sortzailek parte hartuko dute klinikaren urtebetetze festan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Sakanako hamaika taldek ospatu nahi izan dute, elkarrekin, Josefina Arregi klinikaren mende laurdena. Eta igandean, 11:30ean, Altsasuko Burunda frontoian ikuskizun handi bat eskaintzeko bilduko dira. Erkundengo Ama abesbatza, Etxarri Aranazko abesbatza, Altsasuko Udal Txistulariak, Burundar Txistulariak taldea, Haize Berriak Banda, Trasteando taldea, Iñigo eta Imanol Goikoetxea Gozategi taldeko kideak, Los del Rayo taldea, Etorkizuna dantza taldea, Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako ikasleak eta Enrike Zelaia akordeoilariak osatu dute ikuskizunaren kartela. Guztira, 300 parte hartzaile egonen dira agertoki bihurtuko den frontoiko pistan. Gainera, nahiz eta agendagatik igandean ezingo diren egon, Irurtzungo abesbatzak eta Pello Reparaz eta El Drogas musikariek elkartasuna adierazi dute ere. *Maitasuna ahaztura baina indartsuagoa da* ikuskizunaren izenburua.

25 urtetako lana aurrera eramatea ez zen posible izango hainbat pertsona, elkarte eta organismoen laguntzarik gabe, eta horietako bat Josefina Arregi klinikaren Lagunak elkarte da. Hortaz, elkarrekin mende laurdena ospatzeko klinika eta elkarte elkarrekin hainbat ekimen antolatu dituzte, igandean kontzertuarekin mustuko dutena. Maitasuna ahaztura baina indartsuagoa da ikuskizunerako sarrera Iortia kultur gunean eta Josefina Arregi klinikaren erosi daitezke, baita igandean, 10:30etik aurrera, frontoiko txarteldegian ere.

Hamaika talde eta 330 artista ariko dira igandean frontoian egingen den ikuskizunean. Hortaz, "luzeegia" ez egiteko talde bakoitzak 10 minutuko emanalditxoa eskainiko du, Patxi Goikoetxea Josefina Arregi klinikaren La-



Enrike Zelaia eta Amaia San Migel klinikaren jotzen. ARTXIBOA

LOS DEL RAYOK KANTA MUSTU ETA IRANTZU GONZALEZ ESKOLAKO GAZTEEK DANTZATUKO DUTE

gunak elkarteko kideak azaldu bezala. Gainera, zenbait talde elkarrekin ariko dira ere.

Abesti berezia

Mustutze berezia izanen da kontzertuan. Los del Rayo taldeko kide den Peio Diaz musikariak sortutako abestia, lehenengo aldiz interpretatuok dute. Diazen ama alzheimerrekin hil zen eta berari eskainitako kanta sortu du Los del Rayo taldearekin batera. Irantzu Gonzalez dantzariak abestiari koreografia jarri dio eta Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako gazteen taldeak dantzatuko dute. Une hunkigarriak ez dira faltako.

Ekimenak

25 urte ez direnez urtero betetzen, azaroaren 23an bigarren bazkari-omenaldi egingo dute Josefina Arregi klinika "aurrera erama-

ten" lagundu duten pertsonen, elkarteen eta entitateen laguntza eskertzeko. Izan ere, Angel Gardachal Ausejok, Josefina Arregi klinikako gerenteak, gogoratu duenez, "momentu txarretan, egon direlako, modu desinteresatuan langileen eta klinika beraren euskarria izan direlako".

Trasteando musika taldearen eta Josefina Arregi klinikaren ibilbideak paraleloak izan dira; hortaz, Josefina Arregi duela 25 urte sortu zen eta Trasteando taldea duela 20 urte. Musika taldea helburu solidarioekin sortu zen, eta hasieratik klinikaren emandakia egin izan ditu harreman estua sortuz. Aurten, bi entitateen urteurrenak ospatzeko, abenduan urtero Iortia kultur gunean egingen duen kontzertu solidarioa Josefina Arregi klinikari eskainiko diote. Kontzertu berezia izango da, izan ere, disko berria aurkeztuko dute: *Ahazten ez diren abestiak*. Hortaz, diskoa ere klinikari eskaini diote. Gainera, kontzertuan klinikako hainbat pazienteek parte hartuko dutela aurreratu du Gardachalek. Bi ekimenen irabaziak Josefina Arregi klinikarendako izango dira.

Lagunen elkartetik klinikari hauspoa ematen

2011 urteaz geroztik Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoari laguntza ematen dion elkarteak, eraikinaren mantentze-lanetan eta finantza iturriak lortzen aritzen da. Elkarteko kide izateko ateak zabalik daude

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoaren estatutuak betetzen direla eta aurrera egiten duela ziurtatzen duen patronatu bat dago. Senide batek, Altsasuko alkateak eta Sakanako Mankomunitateko presidentek eta mediku batzuk osatzen dute patronatua. "Enpresak (Arfe eta Ufesa) bizirik zeuden bitartean klinikaren sortzen ziren zuloak estaltzen zituzten". 2008ko krisiak Arferen itxiera ekarri zuen, Nafarroako Gobernuak diru-iturria itxi zuen eta testu inguru horretan sortu zen Klinikako Lagunen Elkarte (KLE), 2011 eta 2012 urteen artean.

Elkartek bere buruari helburuak jarri zizkion. Aurrena, klinikaren helburuekin eta jardunarekin zerikusia dutenak bulkatzea, sustatzea, laguntzea eta babestea. Horretarako, elkarrekin egoki jotzen dituen jarduerak egiten ditu, zuzenean edo zeharka. Hala, hezkuntza arloan klinikaren historia, helburuak, xedea eta beste ezagutzera ematea, klinikaren lorpenei, premiei, proiektuei eta abarri oihartzun handiagoa ematea, klinikaren zerbitzu osagarrien hornikuntza eta antolakuntza laguntzea eta klinikari laguntzeko edozein motako publikazioak egitea. Guztia patronatuarekin koordinazioan.

Gehiago

"Feliperen iturria itxi zenean klinika gainbehera egin zuela ikusi genuen. Batez ere egoera fisikoak. Erabaki genuen talde bat sortzea eta mantentze lanetan hasi ginen. Konponketa edo margotze lanak, lorategia zaintzen...". Paniaguak hala gogoratu ditu hasierako egitekoak. "Baina gero diru-iturriak ere sortu behar zirela ikusi genuen". Eta klinikarendako dirua lortzeko "ordezkari lanetan" ere ibiltzen dira. Paniaguak azaldu digunez, horretarako bi gauza egiten dituz-



Elkarteko kideek Baizaren belarra mozteko makina jaso zutenekoa. ARTXIBOA

KLINIKAKO LAGUNEN ELKARTEAK EGITEN DUEN GUZTIA PATRONATUAREKIN KOORDINATUTA DA

te: "gure elkartearendako bazkideak lortzeko lana. Normalean norbanakoak izaten dira. Bakoitzak ahal duena ematen du. Beste batzuetan enprekin harremanetan jartzen gara. Klinikarekin harremanetan jartzen ditugu, zerga-onurak eta halakoak enpresen artean errazago kudeatzen direlako".

Aurrera begira KLEkoen kezketako bat da Nafarroako Gobernuaren hitzarmenarekin zer gertatuko den. Antza, Osasunbideak eredu hori aldatu eta lehaketa publikoak deituko ditu. "Edozein enpresa aurkeztu daiteke horietara. Langileei beste erkidego bateko soldatak pagatu eta proposamen merkeagoak egin ditzakete. Klinikaren indarguneetako bat baita duen langile kopurua. Horrek ekarri du erreferentziazkoa izatea", azaldu digu Paniaguak. Eta egoitza hazteko

idea horrekin, KLEko kideek ez lukete gaizki ikusiko Sakanako udalke eta klinikak hitzarmena sinatzea eta ondorioz, esaterako, eguneko zentroa zabaltzea, "gaur egun itxaron zerranda baitu".

Joseba Arregi patronoak KLE-k "urte hauetan egindako lana eskertzeko eta azpimarratzeko" dela aitortu du. "Oso inportantea izan da. Babes ekonomikoa, klinikaren ikusgaitasuna zabaldu eta auzolanaren bitartez egindako klinikaren mantentze-lana".

KLEk gaur egun 500 bazkide ditu. Bakoitzak nahi duen kopurua ematen du urtean: hasi 12 eurotatik eta nahi den kopurura arte. Bazkide egin nahi duenak amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com e-postara mezua idatzi dezake. Iganeko kontzertuan ere izanen da bazkide egiteko aukera. Elkartearen berri izan nahi duenak, berriz, elkartearen blogaren (http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com/) edo Facebook sare sozialeko profilaren bidez jaso dezake. Eta bata edo bestea erabili daiteke klinikaren mantentze-lanetarako egiten diren auzolanetan izena emateko.

Klinikako arreta unitateak

Eguneko zentroa

Sorreratik martxan, 25 plaza ditu (20 hitzartuta eta 5 libre) eta eguneko zerbitzua eskaintzen du. Geriatra, neurologoa eta psikiatria aritzen dira. Okupazio terapia ere egiten dute. Autonomia eta gizarte harremanak areagotzeko kognizio eta errehabilitazio estimulazioa egite diete gaixoei, euren modura, euren etxetan bizitzen segi daitezten. Hainbat tailer dituzte: errealiteria orientazioa, kognizio-psikoestimulazioa, gerontogimnasia, psikomotritizitatea, funtzio errehabilitazioa, terapia baratza, ludoterapia, komunikazio taldea edota musikarekin jarduerak.

Kanpo kontsultak

Hasieratik eskaintzen den beste zerbitzua da eta espezializatutako mediku kontsulta batean oinarritzen da. Dementzien, kognizio-narriaduren, psikiatria-, lo edo jarrera-nahasmendu eta abarren ebaluazioa, diagnosia eta tratamendua ezartzen dutenak geriatra, neurologoa eta psikiatra izaten dira. Geriatra orokorreko kontsultak ere egiten dira. Halakoetan bihotz-gutxiegitasuna, erorikoak eta bestelakoak aztertzen dira. Gainera, neuropsikologia, fisioterapia, okupazio terapia eta erizaintza kontsultak ere eskaintzen ditu klinikak. Edozein joan daiteke, Osasunbideatik bideratua izan gabe ere.

Ospitaleratze unitatea

13 oherekin hasi zen 1995ean eta gaur egun 21 ditu, guztiak Osasunbidearekin hitzartuta. Bataz besteko egonaldia hilabete ingurukoa da. Klinikako langileen lanarekin ospitalera "galduta" sartzen diren gaixo asko alta jasotzean euren autonomia nabarmen hobetzen dute.

Osate funtzionalaren unitatea

2017an sortu zen eta halako bakarra da Nafarroan. Gaixotasun psikogeriatrikoa izan edo ez, adinekoei euren autonomia berreskuratu eta euren kabuz baliatzeko balio du. Eguneko zentroan bezala, unitate horretan ere tailerrak daude.

Memoria unitatea

Gaitzaren garapena atzeratu asmoz, dementsia arina duten pertsonekin lan bizia egiten da.

Programak

Tratamenduen ikuspegi funtzionala

Pertsonaren autonomia kaltetu gabe, nahasmen egoera kontrolatzeko botikaren eta haren dosiaren arteko oreka bilatzen dute.

Fisioterapia

Gaixoen autonomia fisiko eta funtzional maila hobek mantentzen laguntzen du.

Okupazio terapia

Jarduera bereziak egiten dituzte gaixoei haien okupazio arloak hobetzeko; jarrera eta autoestimua hobetzeko, ahalik eta independentzia mailarik altuena izatea.

Baliabideak

- Ospitale unitatea
- Psikomotritizitate gela
- Irakurketa eta psikoestimulazio txokoa.
- Kanpo ekintzak.
- Baratza.
- Jarduera komunerako gela.
- Musikoterapia txokoa.
- Autozaintzarako jardueren berreskurapenerako gela.





ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

31 eskutik

Azkenaldian inguruan zenbait injustizia gertatu direla sentitu eta ikusi dugu, eta horiei buruz pentsatzen jarrita 31 eskutik esamoldea etorri zait burura. Musean beti jokaldi irabazlea da. Eskutik egoteak arerioaren aurrean abantaila delako, 31 ez badu ere. Musean, jakina, eskua aldatzen joaten denez, joko arauak berdintasunez aplikatzen direla esanen genuke.

Baina ideia hori bizitzako beste alor batzuetara (31 eskutik hori) ekarrita, joko arau demokratikoak eskutik egon beharrean, arau demokratiko horiek aplikatzeko ardura dutenen interpretazioa eskutik dagoenean, arau horien gesaltzea datorkigu. Gesaltzen da herrigintza, izan herrigintzan alternantziarik ez dagoelako, izan demokraziaren oinarriko joko arauak errespetatzen ez direlako, izan neutraltasunaren arauak bermatzen ez direlako.

Beti pentsatu izan dut herrigintzak aurrera egin dezan herritarrok kultura politikoa behar dugula, alegia, gure sistema politikoak ezagutu, ebaluatu eta horiekiko jarrerak aztertzeo gaitasuna. Herritar gisa kultura politikoan hezten joan behar dugu, besteak beste, aldekoen zein ez aldekoen erabakiak eta jardunbideak kritikatzeko sendotasuna eta normaltasuna emanen digulako, ongi egindakoak aitortzeo eta zuzendu eta hobetu beharrekoak ere aipatzeko. Gaur-gaurkoz zenbaitetan urrutu samar gaude praktika horietatik eta zenbait gertaerak izan dituzten ondorioek zur eta lur utzi gaituzte.

GUTUNA

Noiz arte? Altsasu, Sakana

PAKITA ANDUEZA EZKURDIA

(..) Ez daude bakarrik, ez dira inoiz bakarrik egongo ez ziren bakarrik egon. Inoiz ez dira bakarrik egongo!

Jakin badakigu gazteak probokazioetatik defendatu zirela –beraz, ez zuten zuhurtziagabekeria larririk egin–; tabernako liskar bat izan zen, baina ezarritako epaia oso larria izan da. Epailen arabera, ekintza oso larriak gertatu ziren; gure ustez, eta adituen arabera, ez ziren hain larriak izan, probokatu egin zituzten.

Egiaren semeak gara, duintasunaren anaiak, zintzotasunaren lehengusuak, benetako justizia baten ilobak Norbere ekintzak ondo neurtu eta zuzen jokatzeko duenak, ez ditu gainontzeoak gogor epaituko.

Espero dut testu honekin adieraztea bidegabea dela, eta gardentasunik izan ez duen epai baten errealtate goibela ikusten ari garela, objektiboa izatetik oso urrun geratu dena. Hau guztia XXI. mendean gertatu da, Altsasuko gazte eskaldun batzuen aurka.

* Oharra: Noiz arte? liburitik ateratako testu luzeago baten zati bat da.

HARA ZER DIEN

Susa ibarra ezagutzen, AHTren aurka

SAKANA TRENAREN ALDE AHTRIK EZ PLATAFORMA

Araba eta Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren kontrako plataformetako ordezkariak Italiako Susa ibarrean egon dira udara honetan. Bailaran sekulako triskantza egin nahi dute Turin (Italia) eta Lyon (Frantzia) arteko AHTrako bidea eraikitzeo, azpiegitura txikitzaile handienetarikoa Alpe mendilerroa zeharkatzen duen tunel luze bat delarik.

Hemengo plataformako kideok hango esperientziaren berri jasotzera joan ginen, urteak eta urteak baitaramatzate han AHTren aurkako borrokan. Eta oso

interesgarria izan zen. Era eta pentsamolde oso desberdinetako pertsonekin elkartu ginen han: anarkistak, komunistak, katolikoak... Baita ibarreko hautetsi eta biztanleekin ere.

Bai Espainiako Estatuan bai Italian, botereek azpiegitura erraldoi hau aurrera eramateko justifikazio eta arrazoi faltsu berberak erabiltzen dituzte. Bietan aurrerapena eta modernitatea jartzen dute AHT egiteko argudio nagusi gisa. Baina argi dugu proiektu honek ekartzen diguna gure luraren hondamendia eta gure poltsikoek porrota dela, besterik ez.

Susa Ibarrean ere manifestazio handia egin zuten udara honetan, guk Altsasun

egin genuenaren antzekoa, 10.000 pertsona inguruko parte hartzearekin. Bertako manifestazioa desberdina izan zen, ordea; han zazpi orduko martxa bat antolatu zen lanak egiten ari diren eremuraino iristeko, hesiak eta poliziak alde guztietatik zeudelarik... Baina finean oso antzekoa, herritarrek baitzeuden hor, bailarako ia biztanle guztiak, denak azpiegitura suntsitzaile honen kontra.

Hau guztia ikusi ondoren, Susa bailarako esperientzia guretzako probetxugarria izan daitekeela uste dugu. Hori dela eta, hango kide batzuk gure lurraldeetara gonbidatzea aztertzen ari gara, gure egoera erakusteko eta, bide batez, Sakanako biztanleoi beren esperientzia zuzenean ezagutzera emateko.

GUTUNA

Bide bakarra

SAATS KARASATORRE MARTINEZ

"Biolentziarekin ez da deus lortuko eta punto". Edo, "eta Quito" zen? Azken aldian asko hedatu den ustea dela dirudi... Kataluniagatik azkenak. Guztiz baketsua izan den manifestaldi bat izorratu duen jendeaz hitz egiten da, protesta baketsuetatik haratago zilegitasunik ez balego bezala. Gehiengo baten bake nahia gutxiengo baten minaren gainetik balego bezala. Noiz pasa da borroka bide bakarra izatetik, bide bakarra edukitzera?

Pertsona askok bere egin dezakeen borroka-ildo baketsua zalantzan jarri nahi izan gabe, arriskutsua da herri baten borroka grina eta

haserrea bandalismoarekin parekatzea. Bide baketsuak urratu nahi dituenak bezain beste sinesgarritasun dauka minetik, haserretik eta gorrototik errepresioari harrika aurre egitea erabaki duen horrek. Edo gehiago.

Biolentziaz hitz egiten dugunean, gogoratu gaitezen arraina erosketa-zerrendatik aspaldi ezabatu zuen familiatz. Etxegabetu dutenaz, hotza pasa arren berogailua jartzerik ez daukan pisukide gazte taldeaz... Borrokatzeagatik preso hartu zutenaz, torturatuaz, erailaz... Hizkuntza zapalduz, bizilagun langabetuaz, bere buruaz beste egin behar izan duen gazte transexualaz, bere ama jipoitzen zuen gizonarengana bisitan joan behar den haurraz, tratamendurik gabeko

hepatitis C gaixoaz, Melillako hesian zauritutako kamerundarraz, pentsioa edo soldata minimoa kobratuta ere larri dabilenaz... Min emateko modu asko dago, biolentzia mota ugari, baina gehienak ez ditugu denen artean ordaintzen; kaleetan eragiten diren kalteak, ordea, bai. Gu ongi gaude baina, eta ondokoa? Ondokoa bila dezala lan bat, no te jode...

Nork bere borroka modua erabaki dezake, agian, bere borroka beharrezko arabera; baina norbaiti nola borrokatu dezakeen agindu nahi dionak, mugak jarri nahi dituenak, zapaltzaileen eta zapalduen artean jartzen denak, zartakoren bat hartuko du ezinbestean. Batek daki zein aldetatik etorriko zaion.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Erronkaren datuak: 171,78 km-ko luzera, 8.850 metro goraka eta 8.540 metro beheraka. ARGAKZJABEAXXX

Jasotako ondarearen bideak ibiltzera

Arruazu eta Izaba lotzeko erronkari larunbatean 08:00etan ekinen dio. Sakanatik eta Erronkari herrira igandean 10:00ak aldera iritsiko da. Ekimenean parte hartzeko edo babesteko aukera zabalik dago

ARRUAZU

Aritz Ganboa de Migeli "harrikazoa" zena egiteko garaia iritsi zaio. Jaso duen natur-, kultur-, historia- eta giza-ondare horri omenaldi bat egin nahi zion. Horri balioa eman. Eta horretarako bere pasioa erabiliko du, mendi-lasterketa. Bere familiarren bi sorterriak Arruazu eta Izaba lasterka lotuko ditu asteburuan, berak egindako gazta bat bizkarrean daramala. Sekula ez du tamaina horretako probarik egin Ganboak eta aitortu du berarendako erronka dela.

Arbazuarrarekin batera izanen da Iker Carrera, mendi-lasterketa erreferentzia dena. Ibilbidean zehar beste korrikalari batzuk batuko zaizkie: Iker Martinez, Aitor Hernaiz, Igor Iturrieta, Oihana Aizkorbebeitia, Laura Sola... Eta ibilbide zatiak egiteko ere jende askok izena eman du. Bi zatirik gogorrenak Aralarra eta Orhi igotzea izanen dira. Baina beldur gehien ematen diona Bizkarreta eta

Orbaitzetako olaren artekoa ematen da, nekea, gaua eta beselakoengatik. Hor orain arte egindako distantzien arteko muga gainditzen duen. Korrikalari batzuk kamerak eramanen dituzte. Gainera, grabazio talde bat izan da erronka guztian zehar. Irudi horiek *Bideak* dokumentalerako erabiliko dira. Ganboaren martxaren berri jakin nahi duenak Bideak Dokumentalaren Facebook profilean izanen du.

Maulera lanera joan-etorria egiten zuten emakumezko erronkariei enarak hots egiten zieten. Izaban enarei aitortza egiten diete igandean eta horren aurretik iritsi nahi du Ganboak helmugara. Izaban Marengo Bordako gaztandegiko Marinak egindako Erronkari jatorri izendapeneko gazta batekin trukatu du. Ganboak Albi gaztandegian egindako kilo eta berrehun eta bost gramoko Idiazabal jatorri izendapeneko gazta bat eramanen du.

Zer nolako sentsazioak dituzu? Fisikoki nola zaude?

Lanak egin ditugunaren sentsazioarekin. Entrenamenduetan deskantsua izan dugunez azken aste parean, gorputzak lasterka egitea eskatzen dit. Sentsazioa da ongi nagoela. Hala ere, baditugu lanak tartean. Oraintxe

Izabako egitaraua

Lastailak 27, igandea. Enaren festa

- **11:45** Enarekin eta izabarrekin ekitaldia elizan.
- **12:15** Ttuntun, Axuri Beltza eta Bandera dantzak, plazan.
- **12:24** Kalejira eta enarei agurra.
- **14:30** Herri bazkaria.
- **16:00** Dantzaldia Fidel Zelarekin.
- **19:00** Festaren akabera.

ardi-mozten ari gara. Azkenean, geldirik ere ez gara egoten. Aste honetan ere grabaketa lan dazente izan ditugu. Baina ongi. Gehienbat, eguna iristeko eta mendira joateko gogotsu!

Prestaketak nola daude?

Probarako herenegun egin genuen azkeneko informazio bilera kamerarekin. Hau da, lasterka eginez kamera eramanen dutenekin. Lasterketa zuzendaritza ere pixka bat antolatu genuen, ano guneak-eta, non egonen diren. Hori guztia prest dago. Bestetik, grabazioak egin ditugu aste honetan. Eta igandeko festari dagokionez, azken momentuko gauzak, beti gertatzen diren bezala. Autobusera jendea poliki-poliki apuntatzen ari da. Bazkarirako txartelak ere dextek hartu dituzte. Eta oso eguraldi ona egin behar duenez, jendea parte hartzera animatzen ari da.

Euri asko egin du. Zer opatuko duzu?

Ibilbidean, mendian, zenbait eremutan lokatz ugari aurkituko dugu. Horrek ere erritmoa baldintzatuko du. Lokatz asko dagoenean erritmoa mantsotu egiten da, giharrek pixka bat gehiago sufritzen dute eta deshidratazio handiagoa ematen da. Kontuan izan beharko ditugun faktoreak dira. Hala ere, horrelako lasterketa bat nahiko erritmo pausatuan egiten denez, hori kudeatzea errazagoa izaten da. Kontuan hartu behar duguna gauzak ongi eta tentuz egiten ditugula eta azkeneko momentuko lesiorik-eta ez egitea. Hori oso garrantzitsua izanen da. Azkenean lokatzak hori dakarrelako askotan.

Autobusean tokirik bada?

Akaberan sakandarren eta erronkariarren topaketa bat eginen dugu. Hori niri nahiko esperientzia polita iruditzen zait, Mendialdearen mendealdea eta ekialdea batuko ditugulako. Jendea animatzea, autobusean tokia dago oraindik. Baita bazkarirako txartelak hartzeko ere (bata eta besterako eskaerak: info@bideakdokumentala.eus). Han lasai egoteko autobusak eskaintzen du aukera hori. 08:00etan Arruazutik ateratzen da eta 19:00etan Izabatik. Beraz, egun pasa polita egiteko aukera ematen du: mendi buelta bat emateko, egunean zehar dauden ekitaldietan parte hartzeko... Jendea animatzea Sakanaren eta Erronkariaren topaketa polit honetara.



Taloak egiten. ARTXIBOA

Udazkeneko azoka antolatu dute larunbaterako

Artzain txakurren erakustaldia, herrikoazienda, taloak, bazkaria eta pintxo potea

ITURMENDI

Udazkeneko festari bultzada berezia eman diote Kultur Batzordeak eta Iturmendiko Gazte Asanbladak: artzain txakur trebezia erakusketa izanen da Txorralden, 11:00etan; Xabier Lakuntza Ttiki txakurrarekin, Alejandro Ibarra Mendirekin eta Endika Zubieta Suarekin. Konsistorial kalean herrikoazienda izanen da: zaldiak, ardiak, ahuntzak eta astoak.

Udazken festa guztietan ohikoa da talo postua egotea eta oraingoan ere arto irinez egindako opilek ez dute hutsik egingen. Gainera, mikologia eta botanika erakusketa prestatu dute. Iturmendiarrak azken erakusketa horretarako landareak eta barazkiak eramatera gonbidatu dituzte. Goizekoa biribiltzeko herri bazkaria antolatu dute, zikiro eta guzti. Ondoren bingoa izanen da. Borobiltzeko, 20:00etan, pintxo-potea izanen da.

Iturmendiarraren topaleku bihurtu da hileko azken ostiraletan egiten den pintxo-potea. 20:00etatik 22:00etara Aritzaga, Aitzkozar eta jubilatuen elkarteek eta gaztetxean pintxo-potea izaten da. Gaztetxeakoak 4 urte daramate eta azken aldiaren gainontzekoak batu zaizkie. Oraingoan ostiraletik larunbatera pasa dute.



Urdiainen hasi zen liburutegiaren ibilbidea. ARTXIBOA

Guaixe eta Oixe zaharrak kontsultatzeko aukera

Olatzagutiko liburutegian astelehenetik azaroaren 8ra arte, arratsalde, ale zaharrak ikusteko aukera

OLATZAGUTIA

25 urteko ibilbidea egin du Guaixe fundazioak eta sakandarrei bere hastapenak gogoratzeko erakusketa ibiltaria antolatu du. Urdiaindik, Ziordiaik, Altsasutik. Arbizutik, Iruñetik, Irurtzundik eta Etxarri Aranaztik pasa ondoren, Olatzagutian geldialdia izanen du eta bertako liburutegitik pasatzen direnak propio prestatutako stand bat opatuko dute. Han eseri eta 1994 eta 2002 artean publikatu ziren Guaixe hilabetekariaren aleak edo 2001 eta 2003 urteen artean argitaratu ziren Oixe astekariarenak ikusteko aukera izanen da.

Orri artean ttuttuka dabilenak duela bi hamarkadako Sakanako eta Olatzagutiko kontuak berrietzeko aukera izanen du. Gainera, argazki zaharrei erreparatuz denboraren joanak ekarritako aldaketak ikusteko aukera izanen da. Gerta daiteke orri pasa da-

goena bere burua ale zahar batean opatzea. Hala bada, Guaixe fundazioetik irakurle hori gonbidatzen dugu orriarekin batera argazkia ateratzea eta sare sozialetan **#batzengaituena** edota **#Guaixe25** traolekin partekatzea. Nahi duen guztiak standean dagoen photocall-arekin argazkia egiteko aukera du. Argazki horiek partekatzea ere eskertuko luke fundazioak.

Guaixe fundazioaren hemerroteka ibiltarian ikusitako aleren bat berarendako nahi duenik ere egon daitekeenez, eskertuko genioke, lehenik, erakusketakoak han uztea eta, bigarrenik, Guaixe fundazioarekin harremanetan jartzea admin@guaixe.eus e-postara idatziz, eta fundazioak eskatutako zenbakia oparituko dio. Trukean alearekin agertzen den argazki bat egitea eskatuko diogu, sare sozialetan partekatzeko.



Joan den ostiraleko kontzentrazioan biharko bilkuran parte hartzera deitu zuten. @ALTSASUGURASOAK

Altsasuko auziko epaia Iruñean salatzeke deia

Larunbatean, 16:30ean, Antoniuttin, handik Nafarroako Justizia Jauregiara joan eta haren aurrean kontzentrazioa egiteko. Gurasoek eta plataformak azken epaiarekin "injustizia baieztatu" dela nabarmendu dute

ALTSASU

Altsasuko Gurasoak taldeko kideek, atzera ere, *Hau ez da Justizia* pankarta zabalduko dute Iruñean, larunbatean. Espainiako Auzitegi Gorenak hilaren 9an jakinarazitako epaia salatzeke kontzentrazioa da biharko deitu dutena. Edurne Goikoetxeak, ostiraleko kontzentrazioan jendea Iruñeko deialdian parte hartzera deitu zuen: "orain sentitzen ditugun ezintasun, oinaze eta injustizia guztia larunbatean uxatu beharra dugu. Guk behar zaituztegu, asko. Baina behar zaituztetenak auzipetuak dira".

Goikoetxeak gaineratu zuenez, "injustizia hau salatzen segitzea beharrezkoa izaten jarraitzen

du. Preso segitzen dutelako". Guztiagatik gurasoek parte hartzera deitu dute. "Gurekin etorrita, urrunera eraman gaituzue. Une honetan zuen bultzadaren premia dugu, gainbehera egin ez dezagun. Honek segi dezan eta ez dadin ahaztu".

Bizikletan

Sententzia desmuntatuz, Altsasutik Iruñera leloa du Altsasukoak Aske herri plataformak antolatu duen bizikleta martxa. *Duintasunaren martxa* ere izan nahi duena Altsasutik 09:30ean abiatuko da. Aurretik joatea eskatu dute, antolakuntzarako behar direnak banatzeko. Aseguruen-egatik eta bestelakoengatik tro-

peleko txirrindularien kopurua mugatua da. Polentzi Goikoetxeak azaldu digunez, "erantzuna oso polita izaten ari da".

Argitu digunez, "bideko hainbat tokitan, injustizia honen oinarri izan diren hainbat puntu azalduko ditugu eta, horri buelta emanez, egia zein den azalduko dugu". Urdiainen, Etxarrrin, Lakuntzan, Uhartan, Hiriberrin, Irurtzunen eta Berriozarren egingen dute hori. Herrietan jendea harrera egiten egotea espero dute. "Auzipetu baten argazkia egonen da eta zein eskubide urratu diren irudikatuko dugu. Hori guztia jasoko dute, Iruñeko azken ekitaldian erakusteko".

GOIZERO
10:00-12:00

EGUN ON
SAKANA

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

irratia@beleixe.eus

ZURE NEGOZIOAREN
ERAKUSLEIHOA,
BELEIXE IRRATIA.
JARRI HARREMANETAN
GUREKIN!
948 567 074

Zizak eta sendabelarrak udaletxean ikusgai

Mikologia eta botanika erakusketa hartuko du igandean Irañetak 11:00etatik 14:00etara. Hura prestatzeko bilketarako hitzordua larunbatean, 09:00etan elkartean, jarri dute eta jasotakoak sailkatzeko, 17:00etan, Irañetako udaletxean

IRAÑETA / ETXARRI ARANATZ

Mikologia eta botanika zale irintarrak eta uhartearrak bat egin eta urtero mikologia eta landare erakusketa antolatzen dute. Ziza eta landare erakusketa herritik herrira txandakutzen da urtero. Aurten Irañetaren txanda da. Guztia behar bezala prestatzeko larunbat goizean, 09:00etan, Txapel Azpi elkartean jarri dute hitzordua eta handik abiatuko dira erakusketarako zizak eta belarrak biltzera. Jasotakoen sailkapena udaletxean egingen dute 17:00etatik aurrera. Irañetako euskara kultur talde antolatzaileak irintarrak parte hartzera gonbidatu ditu. Sakanako mikologia erakusketen zikloa ixten duen erakusketa da Irañetako. Igandean Altsasuko Garbitoki eraikinean 240 aleko bilduma ikusteko aukera izan zen eta duela bi aste Etxarriko frontoian, berriz, 140, haietako batzuk Opakuan edo Iratin jasoak.

Hala ere, Etxarriko erakusketaren antolaketan aritutako Ventura Mundiñanok eta Patxi Irastorzak, klimak eurei kalte egin arren, kopuruari baino aniztasunari ematen diote garrantzia. Mundiñanok esaten duenez, "kopuruak ez du garrantzirik. Jartzen ditugu ahal den politenak eta hoberenak. Familia politak,



Zizen erakusketa Irañetan izanen da igandean. ARTXIBOA

ziza ona. Zer egiten duzu ziza bakar bat erakutsiz?" Esan dutenez, 160 zizez osatutako erakusketa antolatzeko batere arazorik ez dute. Irastorzak aitortu duenez, "hemen horretarako ekosistema oso polita dugu, ziza asko ateratzen da". Barakaldora 900 ziza ere eramanez dira Hartzabalekoak. 2018an ez zegoen ezer ez. Aurten pixka bat gehiago.

Etxarriko erakusketak 40 bat urteko ibilbidea du. Mundiñanok gogorarazi duenez, Bixente Garziandia, Bartze, hasi zen eta hari laguntzera joaten zirenek osatu

zen elkartean zale taldea. Erakusketa bera Garziandia eta Jose Luis Eseberri mediko izandakoari egindako omenaldia da. Mundiñanok azaldu duenez, "aurrena basoan ibiltzen zen, praktika. Eseberri mikroskopio eta gauzeekin hasi zen. Lanbide horretan biak oso ongi eramaten ziren". Irastorzak azaldu duenez, 2001z geroztik dago Etxarriko formatu berria indarrean: erakusketarekin batera herriko tabernetan zizez egindako pintxoak eskaintzen dituzte. Elkarrekin ematen dizkiete zizak.

Mosulgo gurutzeak ibarrean geldialdia egingen du

Iraken jazarritako kristauen gurutzea igande goizean Aralarren izanen da eta arratsaldean Zamartzen

UHARTE ARAKIL

Hilabete honetan, aparteko misiohilabetea, Mosulgo gurutzea Iruñeko eta Tuterako elizbarrutian dago, herri batetik bestera. Mosuleko Gurutzea Bartellako San Simonen elizakoa da, Mosul

eskualdean, Iraken. Daesh edo Estatu Islamikoak txikitutako eliza ugarietako bat da hori. Gurutze Bide baten zati zen gurutzea eta errea izanaren arrastoak nabari dira. Erlikia hori goratzeko, beste gurutze handi baten

barruan txertatuta eramaten dute. Nafarroako elizako buruek gogoratu dute Iraken 120.000 kristau euren etxetik alde egin behar izan zutela.

Mosulgo gurutzeak Nafarroan egindako ibilbidearen azken geldialdia da Uhartekoa. Aralarko santutegiko igandeko meza nagusian izanen da lehenik, 12:30ean. Zamartzeko monasterioan, berriz, 17:00etan bezperak izanen dira. Gero, misiolari eta jazarritako kristauen testigantzak entzuteko aukera izanen da.



Jende asko inguratu zen ganadua ikustera, nahiz eta eguraldia goibela izan.



Mota guztietako jakiak erosi ahal izan zuten gerturatutakoek.

Bustia, baina feria

Igande goizeko argitasunak gutxi eutsi zion, langarra zena euri bihurtzen zen tarteka, eta alderantziz.

Abeltzain sarituak

5 urtetik gorako hazitarakoak

1. Patxi Legarra, Zuhatzu.
2. SAT Gonzalez, Ziordia.
3. Patxi Agirre, Arbizu.

3 eta 5 urte bitarteko hazitarakoak

1. Martin Ezkurdia Barasoainena, Arbizu.
2. Jose Anjel Rekalde Larunberena, Zuhatzu.
3. Alba eta Alustizarena, Alts.

Behorrek pottoarekin

1. SAT Gonzalez, Ziordia.
2. Jose Anjel Rekalde, Zuhatzu.
3. Xabier Bakaikoa, Lakuntza.

Pottorik gabeko behorrek

1. Juan Aldaba, Satrustegi.
2. SAT Gonzalez, Ziordia.
3. Javier Lanz, Lakuntza.

Urte beteko pottoak

1. Fermin Unzilla, Etxarri.
2. Martin Ezkurdia, Arbizu.
3. Patxi Legarra, Zuhatzu.

Bi urteko pottoak

1. Juan Aldaba, Satrustegi.
2. Jose Javier Arraiza, Uhartea.
3. Juan Aldaba, Satrustegi.

Urte beteko bihokak

1. Jose Anjel Rekalde, Zuhatzu.
2. Juan Aldaba, Satrustegi.
3. Erkuden Gabari, Olatzagutia.

Bi urteko bihokak

1. SAT Gonzalez, Ziordia.
2. Javier Agirre, Etxarri.
3. Fermin Unzilla, Etxarri.

Altsasuko abere onena

Alba eta Alustizaren Txato.

Arakilen kooperazio lanetarako laguntzen deialdia

Arakilgo Udalak kooperazio egitasmoak egiten dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeak laguntzeko deialdia egin du. Laguntza jasotzeko eskabidea aurkeztu behar da udaletxean, eta horrekin batera diruz lagundu nahi den egitasmoari buruzko memoria aurkeztu behar da. Baita finantzatzeko plangintza, kanpoko diru-laguntzak ere (horren berri propio aurkeztu beharko da). Udalak urte hasieratik 2020ko garilaren 1era bitartean garatuko diren proiektuak lagunduko ditu. 2.500 euro banatuko ditu guztira udalak. Eskaeren arabera proiektuek 300 euro eta 2.500 euro artean jaso dezakete, baina bakarrak jaso dezake dena.

Konpontzea, birziklitzeko modu bat denean

Altsasuko Udalaren eskaintzaren barruan dago Kafe Konpondu, hautsiak dauden objektuei bigarren aukera bat emateko tailerra. Batuta elkarteko kideak hurrengo bost asteazkenetan Gure Etxea eraikinean izanen dira 17:30etik 19:30era. Hara bere traste hautsiarekin joaten denak konponbiderik baduen jakiteko aukera izanen du. Berdin dio altzaria, etxetresna elektrikoa edo dena delakoa izatea. Kafe Konpondu espazio bat izan nahi du konpontze premia dutenen eta dakitenen arteko harremanak sortzeko, horregatik kafea eta pastak izanen dira. Objektuei bigarren bizi ematea da helburua, eta hondakin gutxiago sortzea.

Desfibriladore pare bat gehiago jarriko dira

Dagoeneko Zelandi kiroldegian, Dantzaleku kirol gunean eta lortia kultur gunean daude

ALTSASU

Aurreko urteetako martxari segituz, Altsasuko Udalak urtero desfibriladoreen bat erosteko eta udal eraikin batean jartzeko asmoa zuen. Eta aurten baten faltan bi eskuratuko ditu. Haietako bat udaltzainen ibilgailuan izanen da. Izan ere, udaltzaingoak urtea despeditu aurretik bost agente gehiago izanen baititu. Beste, desfibriladorea, berriz, udaletxean jarriko da. Horrekin batera, Altsasuko Udalak antolatuta, desfibriladoerak erabiltzeko ikastaroa jasoko dute Intxostiapuntako gaztetxokoko eta Udal Musika eta Dantza Eskolako langile batzuk.

Bihotza gelditzen den kasuetan larrialdi zerbitzura hots egitea da egin beharreko aurreneko gauza. Baina, haiek iritsi bitartean, tratamendu azkarra ematea ezinbestekoa da: bihotz-biriketako bizkortze oinarritzak egiteko maniobrak egitea eta desfibrilazioa. Azken hori da desfibriladoreen egitekoa: elektrizitate deskarga baten bidez bihotza bere funtzionamendu egokira bueltatzeko. Trebatutako pertsonen bihotzekoak izan duten pertsonen % 75en bizitza salbatuko lukete desfibriladorea eskura izanda.



Kaluxa kaleko ikuspegai duela egun batzuk.

Kaluxa kalea lanengatik hankaz gora

Herri erdiguneko kaleko sareak eta zorua berritzeko lanak egiten ari dira. Eta, ondoren, De Felipe eta Bentalde kaleen txanda izanen da. Horrekin batera basoko deta dermioko bideak konpondu ditu udalak

URDIAIN

Kaluxa kalean makinak nagusi dira azken asteetan. Kale horretako sareak eta zorua berritzeko lanak egiten ari dira eta ezohiko itxura du kaleak. Urdiaingo Udalak 294.300 euro bideratu ditu lan horietara. Baina bi dirulaguntza jaso ditu. Batetik, Nafarroako Gobernuaren 205.800 euro. Eta, bestetik, Sakanako Mankomunitatearen 68.000 euro. Izan ere, ibarreko erakundearen eskumena da hornitze eta saneamendu sareak egitea. Lan horiek abendurako despedituko dituzte.

Haiek despedituta, obretarako makinak herrian behera eginen dute, De Felipe eta Bentalde kaletara hain zuzen ere. Bi kale

horietako sareak eta zoladura ere berrituko dute. Haien aurrekontua 495.300 eurokoa da. Haie-tatik 346.000 euro Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza dira eta beste 124.300 euro Sakanako Mankomunitatearenak. Bi kale horietako lanak martxorako despedituko dituztela aurreikusten da.

Bideak

Basoko bideak konpontzen aritu da Urdiaingo Udala udan. Aizkibilgo (Maubiako pistatik Intxusbururantz) eta Bustintza bideak konpondu dira. Duela bi aste, gainera, San Pedroko bidean, Basoegalan, harri lubeta egin berri dute, erreka bidean azpi-

lana egiten ari baitzen. Lanek 56.000 euroko aurrekontua izan dute eta Nafarroako Gobernuak 31.700 euroko diru-laguntza eman zuen. Bestetik, azientzarendako azpiegiturak ere berritu ditu Urdiaingo Udalak, zehazki Erdofe (640 metro) eta Santa Marinarako (330 metro) bideak konpondu ditu. Lan horien aurrekontua 66.245 eurokoa izan zen, foru administrazioaren 35.500 euroko laguntzarekin osatu zena.

Inbertsio horiei aurre egiteko Urdiaingo Udalarik ongi etorri zaio baso aprobetxamenduetatik ateratako dirua: 96.500 euro hain zuzen ere. San Pedroko bidean, bargan eta Urriztin egur loteak saldu ditu.

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Olga Martínez de Lagrán
PSIKOLOGIAN DOKTORA

Psikologian doktorea
- Minaren tratamendua
- Antzietatea, depresioa, beldurak
- Masaje psikoemazionala

olgamaltogami@yahoo.es
639 408 118

Etixerako aseguroak

Zure etxea
dena
delakoa
izanda ere

% 25^{tas} DESKONTUA

Konfiantzazko
aseguradora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 - ALTSASU

MAPFRE
La aseguradora global de confianza



Hainbat lakuntzarrek parte hartu zuten ekimenaren eta egitarauaren aurkezpenean. UTZITAKOIA

Mikel Arregiren memoria gaur egunera ekartzeko

Lakuntzarrek Mikel Arregi Gogoan herri ekimena bulkatu dute "gertatutakoaren egia aitortua izan dadin". Horretarako, hiru hitzordu prestatu dituzte. Aurrena, gaur, dokumental emanaldia; ondotik mahai-ingurua, erakusketa eta lore-eskaintza

LAKUNTZA

Azaroaren 11n 40 urte beteko dira Guardia Civilak Mikel Arregi hil zuela. Mikel Arregi Gogoan herri ekimenaren "helburu nagusia egun hartan jazotako gertakari bortitz eta lazarriaren oroimen historikoa berreskuratu eta gordetzea da". Ekimenaren aurkezpenean adierazi zuten, "gure aletxoak jarri nahi dugu

gertatutakoaren egia aitortua izan dadin. Izan ere, Mikel Arregiren erailketa testuinguru jakin batean gertatu zen eta ez zen kasualitatea edo istripu bat izan, bertsio ofizialak esaten duen bezala, motibazio politikoa medio estatuko indar polizialek erail baitzuten". Ekimeneko ordezkariak gogorarazi dutenez, "oraindik Arregik ez da motibazio

politikoa duen gatazkaren biktima bezala kontsideratua izan, eta ondorioz, ez Mikelek ezta bere sendiak ere ez du benetako justiziarik ez eta erreparaziorik izan".

Mikel Arregi herri ekimeneko kideek egia, justizia, erreparazioa eskatu dituzte. "Inpunitateak ez du etenik". Eta horren adierazle gisa argudiatu dute, aurrena,

Etxarri Aranatzeko jarritako oroigarriak eta plakak jasotako erasoak. Bestetik, motibazio politikoa dela eta funtzionario publikoek edo eskuin-muturreko taldeek eragindako biktimak aitortu eta erreparatzeko, Nafarroako Parlamentuak onartutako 16/2015 Foru Legeari Auzitegi Konstituzionalak helegitea jarri eta bertan behera utzita egotea, azkenik, zenbait hedabidek gertatutakoaren harira informazioa manipulatzeko jarraitzen dutela Mikel "terrorista" bezala izendatuz.

Ekimeneko iritziz, "interese berezia dago poliziaren biktima izandakoen inguruko gertaerak desitxuratzeko, egia ezkutatzeko, ez azalarazteko. Botereak bere kontakizun ofiziala inposatzen jarraitzen du eta bortizkeria erabiltzen duten funtzionario publikoak babestu". Ekimenetik ziurtatu dutenez, "egia aitortzea oinarritzkoa da errepikatu ez dadin. Guk egiaekin aurrera jarraituko dugu, Mikel eta bere sendi eta lagun ondoan, gure babes eta maitasun guztia adieraziz".

Gertakariak

1979ko azaroaren 11ko gauean Mikel Ziorditik Lakuntzarako bidean zihuan autoz beste lau lagunekin. Etxarri Aranazko koartelera iristearrekin, tiroka hasi zitzaizkien guardia civilak eta Arregi larriki zauritu zuten. Ospitalera bidean hil egin zen. Guardia Civilak kontrol bat geratu gabe gainditu izana egotzi zien. Ikerketa bat ireki zen, Lakuntzako Udalak bultzatutako ikerketa batzordearen eta herri-tarren erantzun indartsuaren ondorioz, eta hainbat lekukok argitu zuten kontrolik ez zegoela une horretan.

1981n epaiketa izan zen eta epaiak argi jaso zuen ez zegoela inolako kontrolik. Hala ere, inpunitatea erabatekoa izan zen; "arduragabekeria arina" egotzi zieten guardia zibilei eta bi hilabeteko espetxealdia besterik ez zuten izan.

Prestatu duten egitaraua

Lastailak 25, ostirala

• **22:00** Mikel Arregi Marin 1979-2004 dokumentalaren emanaldia. Bil-Tokin.

Azaroak 9, larunbata

• **19:00** Mahai-ingurua: errepresioa, polizia biolentzia eta euskal gatazka politikoa. Lakuntzako Kultur Etxean. Parte hartzaileak: Fermin Rodriguez (German Rodriguez Saizen anaia), Txaro Arregi (Mikel Arregiren arreba), Eneko Etxebarria (Jose Miel Etxebarria Alvarez, Naparraren anaia), Idoia Zabaltza (Mikel Zabaltza Garateren arreba) eta Nerea Zabala (Iosu Zabala Salegiren arreba).

Azaroak 11, astelehena Hilketaren 40. urteurrena

• **18:30** Gogoan hartzeko izenak erakusketaren mustutzea, Etxarri Aranazko kultur etxean.
• **19:30** Lore eskaintza Mikelen omenezko monolitoan, Etxarriko Mikel Arregi parkean.

GURE AMETZA

Etxarri Aranazko jubilatuen elkarte

FIDELIZAZIO ETA BAZKIDE BERRIEN HARTZE EGUNA

AZAROAREN 23AN 14:30EAN

Bazkideentzako 10€
Bazkideak ez direnentzako 35€
10€ bazkide egiten badira
Izen emateko azken eguna azaroak 5

Pentsio duinen aldeko hitzordu berriak jakinarazi dituzte

Pentsio duinen aldeko borrorak ez du etenik. Altsasuko udaletxe parean astelehen eguerdiko kontzentrazioak egiten ari dira. Eta azkenekoa baliatu zuten udazkenerako duten mobilizazio egutegia jakinarazteko. Aurreneko hitzordua azaroaren 16an izanen da. Pentsio duinen aldeko aldarrikapena Hego Euskal Herriko hiriburuetara aterako dute sin-

dikatuekin, emakumezkoen taldeekin, gazteekin eta beste eragile batzuekin batera. Horregatik, 16koari Jendarte Mobilizazio Eguna deitu diote. Abenduaren 12an, berriz, Gasteizko eta Iruñeko legebiltzarren parean kontzentratuko dira. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren sinatzaileek deituta pentsio duinen aldeko greba orokorra egingen da 2020ko aurreneko hamabostaldian. Asteleheneko kontzentrazioan Ahal Duguko Jone Belarra Urteaga diputatua izan zen.

Lan osasun eskubidea bermatzeko, protesta GH Gueman

LAB sindikatuak jakinarazi duenez, GH Guema enpresako langileak mobilizazio eta lanuzte dinamika bat abiarazi dute berriki. Ekimen horien bidez lan osasuneko eskubidea bermatua izatea nahi dute langileek, LABetik jakinarazi dutenez. Enpresak lan osasunean dituen konpromisoak betetzea aldarrikatu dute langileek.



Epaiketa salatzeko joan den ostegunean egindako kontzentrazioa.

Maravillaseko hustutzeagatik epaitutako 22ak absolbituta

Lau sakandar zeuden joan den ostegunean epaitu zituztenen artean

SAKANA

Iruñeko 4. zenbakidun Instrukzio Epaitegiko epaileak Maravillas gaztetxearen aurreneko husteagatik auzipetutako 22 auzipetuak usurpazio delitu arina egiteaz absolbitu ditu. 2018ko agorriaren 17ko hustean identifikatu zituzten polizia auzipetuak. Epailearen iritziz, identifikazioez aparte, akusazioek ez dute inolako frogarik aurkeztu auzipetuak eraikinean modu jarraian egoten zirela erakusteko. Epaileak nabarmendu duenez, "kausara ez da aurkeztu ezta auzipetuak sare sozialetan partekatutako argazkirik ere. Ez dira zaintza lanik egin erakusteko auzipetuak okupatutako eraikineran normalean sartzen zirela erakusteko, hura kudeatzen edo jarduerak zuzentzen zituztela erakusteko".

Sakanako auzipetuek epaiketari adierazi zuten, haiek ez zuten eraikina okupatu, ez zutela bertan jarraitzeko asmorik eta ez zutela inolako lokailurik prestatu (hustea eragozteko hainbat modutara kateatu ziren gaztetxean). Lau sakandarrek gaineratu zuten, huste garaian eurak han zeuden "gaztetxeak zen auzo proiektuari elkartasuna adierazteko". Epaian jaso denez, huste egunaz aparte, lau sakandarrek Maravillas gaztetxearen bestelako jardueraren batean parte hartu izanaren konstantziarik ez dago. Epaileak dioenez, "huste eguneko identifikazio puntuala ezin da eraikinaren okupazioztat hartu, ezta haren mantentzetzat. Maravillas gaztetxearen

jarduerari emandako babes ideologikoa da, beste hainbat sektorek azken bi urteetan egindako parekoa". Epaileak gaineratu duenez, "kateatu ziren modua ez zen nahikoa hustea eragozteko edota polizia jarduna bertan behera uzteko".

Epaileak gaineratu zuenez, lau sakandarrendako "zigor eskaerak ez dute bat egiten krimen arduraren sortzen duten tituluekin". Izan ere, legediak ezartzen baitu irauteko borondatea eta jarduerari jarraitua egon behar dela usurpazio delitua egoteko. Joan den ostegunean egin zen epaiketa eta fiskaltzak auzipetutako hirurendako eskatu zuen soilik isuna: 630 euro bakoitzari. Eraikinaren jabe den Nafarroako Gobernuak, bestalde, bost auzipeturendako 900 euroko isuna, hamarrendako 990 eurokoa eta zazpirendako 1.080 eurokoa eskatu zituen, baita 34.168,69 euroko kalte-ordaina ere, Foruzaingoaren hedapenagatik eta eraikinean eragindako kalteengatik. Epaia helegitea aurkeztu da kioke Nafarroako Auzitegian.

Isunak

Maravillas ilbeltzaren 8an hustu zuten. Hura salatzeke Iruñean bide mozketara transfeminista egin zuten eta, horregatik, hiru sakandarrei Mozal Legea aplikatuta 1.000 euroko isun bana jarri zieten. Isunei eta zigorrei aurre egiteko elkartasun dinamika antolatu zen eta gaur eta bihar Berriozarren kontzertuak daude.

Biak Bat-en hiru programei eusteko eskaera

Lagundutako programei eustea eta zabaltzea eskatu diote elkartekideek Parlamentuko buruari

ALTSASU

Hiru altsasuarren arteko erakunde bilera izan zuten atzo. Nafarroako Parlamentuko presidente Unai Hualdek Biak Bat elkarteko Josune Azpiroz eta Iosu Mendez hartu zituen. Pertsonen bizi kalitatea animaliek lagundutako esku-hartzeekin hobetzea da elkarte horren lanaren oinarria. Azpirozek azaldu zuenez, parlamentuko presidentearengana jo zuten "erakunde babes" eske, "gaur egun diruz lagundutako hiru programa mantentzeko eta, ahal den heinean, lurraldean gehiago zabaltzeko".

Hiru egitasmo horien bidez Biak Bat elkarteko kideek hiru esparrutan aritzen dira lanean: funtzio aniztasuna duten adin txikikoekin, genero indarkeria egoerak bizi izan dituztenekin eta asistentzia txakurren iragarritasun publikoaren kontzientzia zabaltzen. Elkartekideek, bestalde, Hualderi eskatu zioten "Nafarroan animaliek lagundutako esku-hartzeak aztertzeke", horrekin zerikusia duen guztia arautu ahal izateko, "batez ere animalien ongizateari begira". Eta Nafarroan asistentzia txakurrek eta animaliek lagundutako esku-hartzearen arloan dauden behar eta eskaera oinarritzkoak zein diren jakinarazi dizkiote.

Hualdek, bestalde, asistentzia txakurrek eta animaliek lagundutako esku-hartzearen arloan dauden behar eta eskaera oinarritzkoak Eskubide Sozialetako Batzordeari helaraziko dizkiola hitzeman zuen, eta Azpirozi eta Mendez aipatu batzordeko kideei jakinaraztea proposatu zien.

Altsasun 2011. urtean sortu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte. Animaliek lagundutako esku-hartzeak erdigune izanda, behar psikosozialak asetzeko proiektu sozial berritzaile gisa sortua.

Garmendiarendako UEMaren ikerketa beka

"Euskararen biziberritzean ikerketa ere behar dugu nahitaez, eta horretara dator beka hau"

ALTSASU

Iñaki Arregi beka deialdiaren aurreneko bi saridunetako bat Joseba Garmendia altsasuarra da. Ekonomialaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, bekaren laguntzaz tokiko garapen ekonomikorako estrategiak eraikitzeke marko kontzeptuala, arkitektura eta metodologia aztertuko ditu. Horretarako, 5.000 euroko laguntza izanen du. Lana bederatzi hilabetetan aurkeztu beharko du eta 2020ko udazkenean UEMak antolatuko dituen jardunaldietan aurkeztuko du.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontseiluak eta Uda Euskal Unibertsitateak elkarlanean antolatu duten beka deialdia da. UEMako lehendakari Iraitz Lazkanok gogoratu



Joseba Garmendia. WWW.UEMA.EUS

duenez, "udalerrri euskaldunak garatzea da euskararen arnasguneei sendo eusteko modu eraginkorra. Beka horrekin sarituko diren lanek, udalerrri euskaldunak garatu ahal izateko ekimen zehatzak jarriko dizkigute eskura urtez urte".



AMAIUR MARTINEZ LAZKANO

Errefuxiatuen aldeko jaki bilketa

Greziako Lesbos irlan Zaporeak elkarteak sukaldia du eta han egunero 1.300 otordu prestatzen dituzte, errefuxiatuen artean banatzeko. Elikagaiak behar dituzte eta jaki bilketa antolatu dute Altsasuko Eroski dendetan. Jaso nahi dituztenak: oliba olio, makarroiak, alubiak, txindilak, txitxirioak, espezieak, sardinak eta atun latak eta ale luzeko arroza.

ABIZENAK EUSKALDUNTZEKO ARGIBIDEAK



Herriko erregistro zibilera
edo udaletxera eraman
beharreko agiriak:



Nortasun agiriaren fotokopia



Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria



Errolda agiria



Familia liburua



Oihane Perkatz Davila

Adina: 31 urte.

Noiz erabaki zenuen abizena euskara-
tzea?

18 urte nituenean.

Zergatik?

Perkatz amarena da. Ordena aldatu eta
lehenengo abizen gisa jarri nuen. Gero
euskaratu nuen. Fonetikagatik.

Bi pausoak batera eman zeniten?

Bai, dena batera. Aldatzerakoan
Euskaltzaindiatik esan zidaten -az
bukatzen duten abizenek -t letra izan
behar dutela, -atz. Horregatik, lehenengo
Percaz Perkatz da orain.

Zu horrekin ados zeunden?

Gutziz.

Abizena euskaratzeko euskalduna izan
behar du, ezta?

Hala da.

Zein pausu eman zenituen?

Txikiak ginela, jaiotzean, amak aldatze-
ko asmoa zuen, baina ezin zuen.
Gerora nik ez nuen nahi izan. 18 urte

bete nituenea
Altsasuko bak
Epaitegian de
Gainera, oso a
te pare batea,
abizenen graf
animatuko nu

Epaitegian alo
tzeko tokietar
da, edo paper
tietara eraman
Tokiaren arab
ko han paper
horrekin berri
Osasunbidear
blemak izan n
Osasunbidear
nuen.

Bitxikeriarik?

Nire familian e
dundu duena:
suek, jada, ald
ez.

Maidier Larrea Mujika

Adina: 41 urte.

Noiz aldatu zenuen abizena euskal grafara?

Duela hamar urte.

Zein aldaketa egin zenuen?

Mugika g-z eta c-z idatzia ikustea, ezin nuen. Mugica izatetik Mujika-ra aldatu nuen. Hori esan zidaten epaitegian.

Zergatik erabaki zenuen abizena euskalduntzea?

Denbora generaman horrekin bueltak. Baina, azkenean, ez bazaizu halakoren bat... Haurra izan behar genuen. Nire bikoteak Celaya abizena zuen eta Zelaia-ra aldatu zuen. Haurrak abizenak euskal grafiarekin izateko aldatu genituen.

Aldaketa egitea zaila izan zen?

Oso erraza izan zen. Udaletxera eroldaren papera hartzera joan behar zen eta gero epaitegira. Goiz batean egi daiteke aldaketa.

Bitxikeriarik?

J beharrea x-gatik aldatzeko aukera eskaini zidaten epaitegian, Muxika.

Adina: 10 urte.

Aitzol Zelaia Larrea

Abizenak euskal grafiarekin dituzu, Gurasoek duela hamar urte aldatu zituzten.

Zein aldaketa egin zuten?

Aitak Celayatik Zelaiara. Eta amak Mugicatik Mujikara.

Zergatik aldaketa?

Aitak Z-taz idazten zuen abizena, baina gauza ofizialetan ez zen horrela agertzen. Aldaketa egin eta gero bai. Gainera niri euskal grafiadun abizena eman nahi zidan. Bakaikun errolda agiria eskatu eta Etxarri Aranazko bake epaitegira joan zen. Aldaketarako pausoak erraz eman zituen.

Bitxikeriak?

Amaren aldeko birramona batek euskara galdu zuen, baina amak esaten zuenez Zelaia -ya (-ia) esaten zuen.



n aldatu nuen. Ni
e epaitegira joan nintzen.
na azaldu zidaten.
zkar egin zidaten, hilabe-
edo. Berez, oso erraza da
ia aldatzea eta nik jendea
ke.

latuta, abizenak gainon-
n automatikoki aldatzen
ak joaten zaren toki guz-
n behar dituzu?
era. Nortasun agiria egite-
bat ematen dizute eta
a egiten duzu. Baina
n aldatzeko kristoren pro-
ituen aldatzeko.
n pasa den urtean aldatu

ez naiz abizena euskal-
ama, izeba eta lehengu-
latu dute. Beste batzuk

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 25

ALTSASU Gazte agenda.
Sex-gunea: sexualitate gazte zerbituzia.
18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Borrokatzea zilegi delako. Biolentziaren monopolioa. Errepresioa.
Nafarroako AEM-ren hitzaldia.
18:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Ipuinen uea: Gure ipuin maiteak Xabier Artiedarekin.
19:00etan, lortia kultur gunean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uhartarakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN Antzerki zikloa: Improvisa tio Yllana konpainiaren Improclan taldearen antzezlaren emanaldia.
20:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Agur, Etxebeste!

gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Conchita tou. Tu vidente pitonisa medium y la de tus muertos antzezlaren emanaldia.
22:30ean, kultur etxean.

LARUNBATA 26

ITURMENDI Santa Marina konpontzeko auzolana.
08:00etatik 14:00etara, plazan.

ALTSASU Duintasunaren martxa. Altsasuko auzia salatzen du Altsasu-Iruñea txirindula martxa.
08:30etan, plazatik.

ALTSASU Dorleta Andre Mariara 100 km-tako irteera eginen du Barranka errepide txirindula taldeak.
09:00etan, suhiltzaileen egoitzaren paretik.

ARAKIL Muskizko El Pobal-La Arboleda meategietara eta burdintegietara bisita.
10:00etatik aurrera, herrietatik.

ALTSASU Ezkaba mendira irteera. Altsasuko Mendigoizaleak antolatuta, gero epaiaren kontrako

kontzentrazioa joateko.
09:00etan, egoitzatik.

ETXARRI ARANATZ Uhartarakil XIII. Saria.
Antolatzailea: Uhartarakil taldea.
11:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Etxerik txikiena familiarteko antzezlana.
17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda. Pizzapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.


ALTSASU The Opera Locos Yllana, Klemark Espectaculos teatrales eta Rami Eldar konpainien antzezlaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 27

OLAZTI Peio Alzuetaren oroimenez Arangoitira irteera eginen du Sakanako Mendizaleak taldeak.
07:00etan, plazan.



OLAZTI Guaixe 25. urteurrena.
Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa ibiltaria.
Urriaren 28tik azaroaren 8ra arte. Astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:00etara, liburutegian.



ETXARRI ARANATZ Guaixe 25. urteurrena.
Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa ibiltaria.

Urriaren 14tik urriaren 25era arte. Astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:00etara, liburutegian.



ALTSASU Altsasuko Arte Azoka.
Urriaren 18tik azaroaren 2ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.


HEMEN DA!
SAKANAKO GIDA 2020

Iragami nahi izanez gero edo datuak berri nahi izanez gero jarri harremanetan publi@guaixe.eus
948 564 275

ZURE NEGOZIORAKO LEIHOA



ZORION AGURRAK



Enaitz eta Arturo
1 eta 1 hamaila, 4 eta 4 zortzi?? Zorionak bikote!!

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ALTSASU Mankomunitatearen martxa 39 km-tako ibilbidea eginen du Barranka BTT taldeak. 06:30ean, Zumalakarregi plazan.

ITURMENDI ETA BAKAIKU Laturalera bisita gidatua. Iturmendiko Aitzkozar eta Bakaikuko Bakarrekotxea elkarteek antolatuta. 09:30ean, Bakaikutik.

IRAÑETA Zizen eta sendabelarren erakusketa. Irañetako euskara kultur taldeak antolatuta. 10:00etatik 14:00etara, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Nafarroako Gobernuko Misteriozko baso eta mahastiak programa. 11:00etan, kanpian (euriarekin estalopean).

IRURTZUN Erabaki baietz! Un paso mas EH Bilduren hitzaldia. Ondoren, bazkaria. 12:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Playmobil familiarterko filma. 17:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Markeliñe konpainiaren *Euria dantza* ikuskizuna. 17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Folk ametsetan zikloa. Suakai taldearen *Raices* ikuskizuna. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Agur Etxebeste! gaurkotasunezko filma. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Yo, Tonya zineforuma. 19:40etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 28

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea. 12:00etan, plazan.

ALTSASU *La danza de los tulipanes* liburuaren aurkezpena Ibon Martin. Haritza tabernak eta Arkatz liburutegiak antolatuta. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 29

ETXARRI ARANATZ Ipuinkontalaria: *Ipuinekin jolasterik nahi?* Xabier Artieda aktorearekin. 17:30ean, liburutegian.

ALTSASU Hokoke. #HuertaDePeralta-Borrokan. Langile borrokaren balioa Nafarroako landa eremuan dokumentala. LABek antolatuta. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 30

ALTSASU Kafe konpondu. 17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

ETXARRI ARANATZ Aralar, mundua leku duen lurra dokumentalaren emanaldia eta solasaldia. 19:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 31

ARBIZU KoopFabrika. Sakanan ekintzailatza sozial eta kooperatiboa sustatzeko programa. 16:00etatik 20:00etara, Utzaganen.

ALTSASU Musikoterapia eta alzheimerra: Gure bizitzako kantak, soinuk eta erritmoak. Musika beti da gurekin hitzaldia. 18:00etan, Josefina Arregi klinikan.

IRURTZUN *Ibilbide beltza*. 18:30ean, Plazaolako iturrian.

ALTSASU *Vivir dos veces* filma. 19:00etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Atondu euskal jantziak nola jantzi erakusteko hitzaldia-tailerra. Hizlaria: Ane Albisu. 19:00etan, udaletxearen areto nagusian.

IRURTZUN XXV. Nazioarteko abesbatza zikloa. Poloniako Wejherowo herriko Art'n voices vocal ensemble abesbatza. 19:30ean, San Martin elizan.

ALTSASU Arimen gaua. Dantzarima dantza konpainiaren Akelarrearen sua berpiztuz ikuskizuna. 22:30ean, Burunda frontoian.

IRAGARKI SAILKATUAK

IBILGAILUAK

SALDU
Arbizun Massey Ferguson traktorea salgai: 400 ordu, trakzio bikoitza eta aire girotua. 6 zilindrotako Perkins motore ingelesa, 24 abiadura. Aukera paregabea, eskaintza barregaririk ez, mesedez. Argazkiak www.guaixe.eus-en ikusi. Kontakturako deitu 600 387 400 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

Sakanako emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, arratsalde edo gauez, baita egun solteak ere. Esperientzia frogagarria. 618 855 249

LEHIAKETAK

Instagram BOTABA Euskal Esamoldeen Erronkaren 3. edizioa: Gazteentzako lehiaketa aurten berrietasunekin eta egundoko sariekin dator. "Beroketa-fasea" urrian hasiko da nola parte hartu ikasteko. Erronka Azaroaren 4tik 25era izanen da. Labayru Fundazioak antolatuta.

Egile berrientzako Iruñeko Udalaren XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa: parte hartu ahaliko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenak. Poesia, Narrazioa eta Bertso-papera modalitateak. Lan bana modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago www.iruñakulturada.eus helbidean.

OPARI

Txakur kumea oparitzen da (Artzai txakur eta arratoi txakur nahasketak). Interesatuak deitu 667 266 746 tfnora.

OHARRAK

Etxarriko irakurle taldea: azaroaren 7an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira eta Amelie Nothomb-en "Durduraz eta dardaraz" liburuaz arituko dira. Gonbidatuta zaude.

Argazkilaritza hastapean ikastaroa Arakilen: azaroak 4/6/18/20 aste-

lehenetan eta asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara, Itziar Matxin-ekin. Erroldatuek 30 euro (ez erroldatuek 40 euro). Izena emateko epea urriaren 30ean amaitzen da, Arakilgo udaletxean.

Gazte bazkarirako izen ematea: Irurtzun-Arakilgo Gazte Asanbladak Gazte eguna antolatu du azaroaren 2rako. Egun horretako bazkarira joan nahi duenak Pikuxarren eman behar du izena.

Bakaikuko Udalaren informazioa WhatsApp bidez jaso nahi duzu? Bandoak, udalbatzen aktak, jarduerak, jakinarazpen eta informazio orokorra, etab jasotzeko deitu edo bidali mezu bat 622 268 161 zenbakira eta informazioa bidaliko dizugu.

AHT-ko lanetara mendi martxa: Mugitu! Mugimenduak azaroaren 23 eta 24ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi martxa bat antolatu du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzeko eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta marbak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzearen eraikina zaharberitze proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren errokan parte hartzerako gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA

Avelino Galartza Lopez de Goikoetxea

1927—2019

«Beti inuxente egun;
hala ere, inarak maiatzean»

Etxekoak

Urdiainen, 2019ko lastailaen.

JAIOTZAK

- **Mikel Maia Checa**, urriaren 14an Altsasun
- **Lier Diez Erro**, urriaren 17an Altsasun

HERIOTZAK

- **Aniceta Zabalegi Reta**, urriaren 17an Lakuntzan
- **Ana Maria Fernandez Chasco**, urriaren 19an Uharteko Arakilen
- **Avelino Galartza Lopez de Goikoetxea**, urriaren 19an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUL, A TU LAGO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

XXII. Iñigo Aritzako Pilota Txapelketa etzi hasiko da

PILOTA Ikastolako 47 neska-mutikok hartuko dute parte eta Olaztin jokatu da lehen jarduna

Iñigo Aritza ikastolan pilota klaseak jasotzen dituzte neska-mutikok, eta gaztetxoengana pilotarako zaletasuna sustatzeko pilota txapelketa antolatzen hasi ziren duela 22 urte. Aurtengo XXII. Pilota Txapelketa 47 neska-mutikok hartuko dute parte eta, nobedade moduan, txapelketa ikastola osatzen duten herri guztietan jokatu da. "Orain arte ikastolako frontoian jokatzeko, baina aurtengo txapelketa Ziordia, Olazti, Urdiain eta Altsasura eramatea erabaki dugu, herri guztiek osatzen dugulako ikastola" adierazi digu ikastolako juntako Mitxel Agirrek.

1. jardunaldia

XXII. Iñigo Aritzako Pilota Txapelketako 1. jardunaldia igandean jokatu da, 16:30ean, Olaztin

Umeak, benjaminak

- Izei Orabengoa – Iurgi Reparaz
- Ekhi Igeltz – Ekhi Guirado
- Eider Gastesi – Naia Olaiz
- Arane Plaza – Jare Fortuna
- Egoitz Urtasun – Ekaitz Zufiaurre
- Oihan Andueza – Edorta Amillano
- Anitz Anda – Bidane Fernandez de Garaialde
- Alaine Mendia – Garazi Gartzia

Kimuak

- Alejandro Lopez – Urtzi Garcia
- Asier Zubiria – Aser Navarro
- Eneko Ganuza – Inhar Urteaga

Haurrak

- Oier Carabias – Hodei Ulaiar
- Eñaut Gastesi – Enaitz Gonzalez
- Aimar Igoa – Xabier Olaiz
- Alaitz Lanza – June Sanzol
- Iraide Vergara – Aiora Agirretxe
- Uxue Angiano – Siets Goikoetxea
- Patxi Azpeitia – Oier Mitxelena
- Oihan Gartzia – Peru Urteaga

"Partida guztietan bezala, irabaztera aterako naiz"

PILOTA Ezkurdiak Artola izango du aurkari gaur Lau T'erdiko final-laurdenetako 3. jardunaldian. Finalerdietarako sailkatzeko nahikoa du 15 tanto egitearekin, baina argi du irabaztera aterako dela. Lasoren kontrako garaipen epikoak indarra emango dio

Asteburuan jokatu den Lau T'erdiko Txapelketako final-laurdenetako ligaxkako 3. eta azken jardunaldiak finalerdietara nor pasako den erabakiko du. Momentuz, Altuna III.a da finalerdietarako sailkatua dagoen bakarra, A multzoan. B multzoan, Joseba Ezkurdiak eskura du sailkatzea, jokatu dituen bi partidak irabazi dituelako. Ezkurdiak eta Artolak gaur, ostirala, jokatu dute Balmasedan (20:30, ETB1). Ezkurdiak nahikoa du 15 tanto egitea edo hurrengo egunean Labriten Lasok Bengoetxea VI.aren kontra galtzea finalerdietarako sailkatzeko.

Lasoren kontra partidari buelta eman izatea "oso garrantzitsua" izan da arbizuarrarendako

Ezkurdiak eta Artolak asteazkenean aukeratu zuten materiala. Arbizuarrak aukeratu zituen pilotak Artolarenak baino pisuagoak baina azkarragoak ziren (106.9 eta 105.4 gr.). Arbizuarrak



Ezkurdiak eta Artolak asteazkenean egin zuten material aukeraketa. ASPE

aipatu zuen inoiz ez duela Balmasedan jokatu, baina lehen entrenamendua egin duela bertan eta jokatzeko "frontoi ona" iruditu zitzaioela.

Arbizuarrak nahikoa du 15 tanto egitea finalerdietara sail-

katzeko, baina argi du ez dela horretara aterako. "Errazagoa da 15 tanto egitera ateratzea, baina ni, partida guztietan bezala, irabaztera aterako naiz. Finalerdietara sentsazio onekin iritsi nahi dut, eta horretarako

hobeto da partida irabaztea espekulatzen ibiltzea baino" adierazi zuen.

Lasoren kontra lortu zuen garaipen epikoak indarra eman dio arbizuarrari. "Partida hasieran ez nituen sentsazio onak izan, baina gero hobeto aritu nintzen, konfiantza gehiagorekin, 13 eta 21 aurreratu zen Laso. "Unai lo tienes hecho"(Unai egina daukazu) entzun nuen kantxatik Unairi esaten ziotela. Horrek sekulako amorrua eman zidan eta pentsatu nuen, ba ez, oraindik ez duzu egina. Eta partidaren sartu nintzen berririo" adierazi zuen Joseba Ezkurdiak. Tantzotantz, egoerari buelta eman eta erre-montada ikaragarria lortu zuen, 22 eta 21 irabaziz. Horrek indarra eta konfiantza eman dio.

Iñaki Artolak eskuekin arazoak izan ditu eta masajeekin dabilela aitortu zuen, baina Ezkurdiak uste du gipuzkoarra aurkari gogorra izango dela Balmasedan. "Frontoira ateratzen baldin bada partida jokatzeko moduan dagoelako da, profesionalak baika-ra. Beraz, partida gogorra dut aurretik" aipatu zuen arbizuarrak. Artolak, bere aldetik, azaldu zuen Ezkurdiak egungo txapel-duna dela "eta hori ez da inoiz kasualitatea. Joseba oso ongi dago, mundu guztiak ikusi du. Partida oso zaila izango da, txapelketa irabazteko hautagai nagusietako bat baita, baina ni gauzak zail ipintzen saiatuko naiz".



JUAN CARLOS IRIGOYEN

Euskal Herriko 2. mailako txapela irazurendako

AIZKORA Larunbatean Euskal Herriko 2. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu zen Altsasun. Urbasatik jaitziko seina pago-enbor erdibitu behar izan zituen aizkolari bakoitzak. Juanjo Lopez Azpilikuetak eta Jon Irazuk lehia oso estua izan zuten, hunkigarria, eta

Jon Irazuk bukatu zituen lanak lehenengo (20:54), Juanjo Lopez 3 segundo aterata (20:57). Biak lehen mailara igoko dira. Hirugarren postua Lakuntzan bizi den Eloy Corcherok lortu zuen (23:26) eta Altsasun bizi den Arkaitz Jauregi bosgarrena izan zen (23:51)

HERRI KIROLAK Herri kirolen tailerra etzi Etxarriko kanpenean

Nafarroako Gobernuak "Misteriozko baso eta mahastiak 2019" udazkeneko kanpaina antolatu du. Kanpaina honek naturari, ondareari eta tradizioei emozioetatik hurbiltzeko modu aktiboa planteatzen du berritasun gisa, hainbat jardueraren bidez.

Kanpaina berezi hori Sakana-ra helduko da. Igandean, hilak 27, Etxarri Aranazko kanpenean herri kirol tailerra antolatu baitute, goizeko 11:00etatik aurrera hasiko dena. Dohainik da, sarre-ralibrea da eta tailerrera agertzen diren guztiek herri kirolen murgiltzeko aukera paregabea izango dute. Bukatutakoan, auzatea izango da bildutako guztiendako.

FUTBOL PREFERENTEA

5. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lagun Artea - Doneztebe	1-0
Etxarri Aranatz - Itaroa	1-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Beti Casedano	11
2 Lakuntzako Lagun Artea	11
10 Etxarri Aranatz	6

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Aibares - Lagun (Oibar)

IGANDEAN

16:30 Ilunberri - Etxarri (Ilunberri)

Lagun bigarrena; Etxarrik punturik ez

Lagunek eta Doneztebek partida oso lehiatua jokatu zuten, eta lakuntzarrek ederki sufritu behar izan zuten. Zubiriak Lagunen aldeko gola sartu zuen 82. minutuan; Doneztebek penaltia huts egin zuen eta 3 puntuak Lakuntzan geratu ziren. Etxarrik eta Itaroa Huartek jokatuak partidaren parez pare ibili ziren bi taldeak. Xabatek Etxarri aurreratu zuen, baina egoerari buelta eman zion Itaroak eta 3 gol sartu zituen.

FUTBOL ERREGIONALA

5. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Aurrera	2-0
-------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Salesianos	11
9 Altsasu	4

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:15 Altsasu - Berriozar (Dantzaleku)

Altsasuk lehen garaipena lortu zuen

Altsasuk Leitzako Aurrera hartu zuen larunbatean Dantzalekun. Partida oso lehiatua, Aurrerak ongi eutsi zituen altsasuarren erasoak. Altsasuk gehiago arriskatu zuen, eta Altsasuko Javierrek eta Aitorrek leitzarren atea zulatu zuten.

EMAKUMEEN ERREG.

7. JARDUNALDIKO EMAITZA

Cortes - Altsasu	0-7
------------------	-----

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Castejon	18
11 Altsasu	9

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Altsasu - Mulier (Dantzaleku)

Altsasuren garaipen potolua

Sonia Irisek (3), June Garcia de Albenizek (2), Jone Gradosek eta Amets Oteizak sartu zituzten Cortessen kontrako golak.

Sakanako Herri Lasterketa etzi Etxarrin

ATLETISMOA Igandean, goizeko 11:00etan, kategoria txikiko lasterketak jokatu dira, 11:45ean Errefuxiatuen Aldeko Oinezko Martxa abiatuko da eta 12:00etan proba nagusia (7 km). Goizean Maksim Magoa eta haurrentako jolasak izango dira

Udazkena lasterketen denboraldia izaten da eta hemen ere badugu gurea. Sakanako Mankomunitateak antolatuta, igandean XIX. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia jokatu da Etxarri Aranatzan, "Ongi Etorri Errefuxiatuak" lelopean. Horretarako, Mank-ek hainbat entitatekin -Etxarri Aranatzko Udala, Nafarroako Gobernua, Sakana Harrera Harana, HELPNA eta Dantzaleku Sakana- eta La Burundesa babesle nagusiaren eta beste hainbat babesleren laguntza izan du. Hasiera batean bihar, larunbat arratsaldean, egitekoa zen, baina igande goizera atzeratu dute, bihar Iruñean altsasuar auzipetuen aldeko elkarretaratzea deituta dagoelako.

Sakanako Atletismo Koparako baliagarria

Sakanako Herri Lasterketaren helburua atletismoa sustatzea da. Atletismoak beti izan du indarra gurean; hainbat lasterketa antolatzen dira eta korrikalari asko daude. Horregatik, eta bertako lasterketak bulkatzeko, Sakanako Atletismo Kopa sortu zuen Mankomunitateak. Eta, igandean Etxarri Aranatzan jokatu den XIX. Sakanako Herri Lasterketa aurtengo XVI. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako puntuagarria izango da.

Egun, Ergoienako Bira jokatu eta gero, emakumezkoetan Erkuden San Martin doa buruan, Izaskun Beunzaren eta Maite Zabaletaren aurretik. Eta gizonezkoetan Javi Moreno dago buru, Joxeja Maizaren eta Raul Audikanaren aurretik.

Bestalde, azaroaren 10ean jokatu den Behobia-Donostia lasterketa ezaguna prestatzeko entrenamendu bikaina da Sakanako Herri Lasterketa. Probarekin gure herriak, gure kultura eta euskara bulkatu" nahi ditu Mank-ek, eta horregatik laster-



Aurreko urtean Olaztik hartu zuen Sakanako Herri Lasterketa. Argazkian, irteera.

IGANDEAN EGURALDI ONA IRAGARRI DUTE ETA LASTERKETAN ARITZERA ANIMATU DU MANK-EK

keta urtero herri ezberdin batean antolatzen dute, Sakanako herri ezberdinak erakusteko.

Haurrak 11:00etan eta helduak 12:00etan

Sakanako Herri Lasterketako kategoria txikiko probak goizeko 11:00etan hasiko dira. Benjaminurrekoak (200 m), benjaminak (400 m), kimuak (800 m) eta haurrak (1200 m) ariko dira, hurrenez hurren. Kadeteak, aldiz, helduekin batera ariko dira, 12:00etatik aurrera hasiko den nagusien proban, eta Etxarriko kaleetan barna prestatutako zirkuituari bi buelta emango dizkiote (4,5 km). Aldiz, gazteek, seniorrek eta beterranoek hiru buelta emango dizkiote zirkuituari (7 km inguru).

Iganderako ez dute euririk iragarri eta Mank-ek lasterketan aritzera animatu ditu sakanda-

rrak. Aurreko urtean, Olaztin, proba nagusian 70 korrikalarik hartu zuten irteera eta kategoria txikietan beste horrenbestek. Zubietako Raul Gomezek eta Cabanillasko Aitana Gilek irabazi zuten.

Ongi etorri errefuxiatuak oinezko martxa 11:45ean

Sakanakoa ez da lasterketa arrunta; kirol, kultur eta izaera soziala duen proba da, kasu honetan errefuxiatuen aldekoa. Horrela, lasterketa nagusia hasi baino ordu laurden lehenago, 11:45ean, "Errefuxiatuen Aldeko Martxa, Ongi etorri errefuxiatuak" oinezko martxa abiatuko da. Etxarri Aranatzan prestatutako lasterketarako zirkuituari buelta bat eman beharko zaio. 2,25 km-ko oinezko martxa. Ekimen irekia da eta nahi duen orok har dezakete parte, doan.

Goizean barna, errefuxiatuen gaia lantzeko Sakana Harrera Haranaren eta HELPNA taldearen, Larrialdi Humanitarioetarako Nafarroako Suhiltzaile Bolondresen taldearen inguruko informazioa jaso ahal izango da Etxarri Aranatzan jarriko diren postuetan. Azken hauek Grezia-

ko errefuxiatuen kanpamenduetan lan handia egiten dute. Bi elkarre hauen informazioa jasotzeaz gain, Serbiako eta Greziako errefuxiatuen errealitatea eta bizipenak zuzenean ikusi eta entzuteko aukera izango da.

10:30ean Maksim Magoa

Nolanahi ere, ekitaldiak goizetik hasiko dira. Goizeko 10:30ean magia ikuskizuna eskainiko du Maksim Magoak eta eguerdian umeendako jolasak izango dira (piko-pikoa eta txapak egitea) eta henna margoketa.

Izena ematea zabalik

Igandean, goizeko 10:00etatik aurrera mugimendua egongo da Etxarri Aranatzan. Goizeko 10:00etatik aurrera dortsalak jaso beharko dituzte korrikalariak, eta hurren lasterketan eta helduen lasterketan parte hartzeko izena ematea zabalduko da. Urriaren 25eko 22:00ak arte www.herrikrosa.eus web gunean egin daiteke izena ematea (8 euro), eta lasterketa egunean bertan, goizeko 10:00etatik 11:30ak arte, Etxarri Aranatzan (10 euro). Kategoria txikikoek, kadeteak eta gazteak zein Errefuxiatuen Aldeko Martxakoek dohain dute parte-hartzea.

Sari ematea 13:00etan

Sari ematea 13:00ak aldera izango da. Sakanako Herri Lasterketako lehenengo hirurek eta lehenengo hiru sakandarrek, gizonezkoek eta emakumezkoek, saria izanen dute, bertako produktuak.

Horretaz gain, lehenengo kadeteek, jubenilek eta beterranoek, azken hauek hiru mailatan, saria jasoko dute ere. Bestalde, lasterketa bukatzen duten partaidea guztien artean, Peio Goikoetxea masajistaren masajeak zozketatuko dira, afari eta bazkariak, partxis kolaboratiboa, Zurrumurruren kontrako mantala eta HELPNAren eta Sakana Harrera Haranaren kamisetak. Oinezko martxan parte hartzen dutenen artean bi pertsonendako bazkari edo afaria zozketatuko da.

Auzate berezia

Bukaeran, bildutako guztiendako auzate berezia izango da Etxarri Aranatzko plazan. Ohiko bertako jakiez gain, gurera bizitzera etorri diren jatorri ezberdinetako sakandarrek euren jaki tipikoak prestatuko dituzte.

270 partaide Altsasuko Onddo Lasterketan

ATLETISMOA Onddo Lasterketarekin batera jokatu zen 40. Eskolarteko Ferietako Krosean, probaren hasierako antolatzaileei, orduko korrikalariari eta egungo partaideei errekonozimendua egin zitzaion

Larunbatean 270 partaide hartu zuten parte Dantzaleku Sakana taldeak antolatutako Onddo Lasterketa proba herrikoi eta ez lehiakorrean. Oinez edo korrika, Basoixin, San Pedron eta inguruko paraje zoragarrietan 6,5 kilometroko buelta egin zuten korrikalari eta oinezkoek. Bukarera, hiru onddo saski zozketa ziren eta Silvano Martinez, Raquel Alvarejo eta Esteban Zornoza izan ziren saridunak.

Ondoren, eguerdian, 40. Altsasuko Eskolarteko Ferietako Krosa jokatu zen. Antolakuntzak proba lehenengoz antolatu zuten Carlos Macho –garaiko Navarro Villoslada eskolako irakaslea–, Peio Vergara –eskolarteko kirolen koordinatzailea– eta Daniel Ziordia zena –garaiko atletismo monitorea– omendu zituen, eta haiekin batera, lehen edizio hartan parte hartu zuten korrikalariak, Jose Crespo eta Silvi Zulet, beti bere laguntza eman dutenak, eta baita aurtengo edi-



Omenduei auresku berezia eskaini zieten Irantzu Gonzalez Dantza Eskolakoek.

zioan parte hartu zuten 60 neska mutikoak ere. Guztiei auresku eta koreografia berezia eskaini zieten Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako zenbait kidek. Miren Zelaia altsasuarra ekitaldira hurbildu zen, duela 40 urte

Eskolarteko Ferietako Kroseko lehen edizioan jaso zuen trofeoa eskutan zuela. Egungo pasadizoan izan zen. Goiz guztian barna Josefina Arregi Klinikaren Lagunen aldeko dohaintzak jaso ziren.

SASKIBALOIA CBASK-Jatormanek bi partida ditu jokoan

Autonomien Arteko 2. Mailako Ligako 3. jardunaldian, San Cernin liderraren kontra jokatu zuen Altsasuko CBASK-Jatormanek. Bi taldeek sekulako partida eskaini zuten, emozio handikoa. Azkenean, San Cerninek irabazi zuen bozina gainean zuela, 64 eta 63, soilik saskiratze baten aldearengatik. Horrela, Autonomien Arteko 2. Mailako Ligako lidergoari eutsi dio San Cerninek (6 puntu). CBASK-Jatorman 13.a da (2 puntu).

Asteburuan jardunaldi bikoitza dute altsasuarrek. Larunbatean, Zelandin, 18:00etan, Aranguren Mutilbasket taldea hartuko dute, eta igandean 12:00etan, Larraona A dute aurkari, Zelandin.



BANGO RACING CARS

Flores, Espainiako txapeldunordea

AUTOMOBILISMOA Asteburuan Les Revoltes D'Ibiko Igoera jokatu zen Alacanten, Espainiako Mendi Txapelketarako puntuagarria zen azken lasterketa. Domingo Estrada (Silver Car S3) izan da Espainiako Mendi Txapelketako 2. mailako txapelduna (146,2 puntu), eta bigarrena Garikoitz Flores izan da, 10 puntu gutxiagorekin (136,6 puntu).



Ezkerrean Jon Gil, eta eskuinean Eneko Aramendia. TOÑO DE LA PARRA / NATXO MATXIN, FOKU

Gil afizionatuetara igoko da eta Aramendiak bizikleta utziko du

TXIRRINDULARITZA Jon Gil Lizarten ariko da hurrengo denboraldian eta Eneko Aramendiak aro berria hasiko du

Junior mailako bigarren urtean denboraldi ona egin du Jon Gil txirrindulariak (2001, Lakuntza) Lizarte-Ermitagaña taldean. Bi lasterketa irabazi ditu: maiatzaren 18an Zumaiako Joxe Mari Korta Memorialan gailendu zen eta irailaren 29an XXIII. Indurain Anaia Sarian lehena izan zen Atarrabian. Horretaz gain, Junior mailako Itaroako Challengean –junior mailako 26 lasterketa puntuatu dira bertan– bigarrena izan da, Sakana Group taldeko Aitor Alberdi txapeldunaren atzetik. Taldeak bere lanari aitorza egin dio eta hurrengo urtean afizionatuen Lizarte taldera egingo du salto lakuntzarrak.

Jon Gilek Gasteizen hasi dituen Ingeniaritza Mekanikoa ikasketak txirrindularitzarekin partekatu beharko ditu eta afizionatuetan txirrindulari bezala hazi egin beharko du. Eskalatzaitzat du bere burua "edozein ibilbidera egokitzeko gaitasunarekin". Lizarte taldeko kirol zuzendari Jon Armendarizen esanetan "txirrindulari borrokalaria da, bere gaitasunei etekin handia ateratzen diena". Ibilbide berrian dohain hori ezinbestekoa izanena du lakuntzarrak.

Eneko Aramendiak txirrindularitzari agur

Eneko Aramendiak (1997, Iturmendi) sare sozialen bidez azaldu du txirrindularitza uzteko erabakia. "Txirrindularitzari agur esateko ordua, 15 urteren ondoren. Beti dena emateaz harro eta jende askori eskertua.

Jende ikaragarria eta leku ezberdin asko ezagutu ditut, baita esperientzia ikusgarri asko bizi ere. Etapa berri bat hasteko ordua iritsi da".

Eneko Aramendia Burunda klubean trebatu zen eta Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin debutatu zuen afizionatuetan. Rural Kutxa-Seguros RGA taldean hiru urte aritu eta gero, aurtengo Goierriko TB-Laboral Kutxa taldera egin zuen salto Aramendiak. Martxoaren 23an afizionatuen bere lehenengo lasterketa irabazi zuen, XXIV. Laukizko Udal Saria, eta adierazi zuenez, "garaipenagatik baino, bere burua peleian, borrokan ikusteagatik" poztu zen gehiago. Ondoren, Beasaingo Loizaz proba ezagun hiru urte aritu izan zen, Nafarroako Itzulian bigarren nafarra, eta ekainaren bukaeran Espainiako Txirrindularitza Txapelketan aritu zen Nafarroako selekzioarekin. 23 urtez azpiko lasterketan zazpigarrena izan zen. Denboraldi ona egin du iturmendiarrak, baina bizikleta uztea erabaki du. Robotika Goi Zikloko ikasketak bukatuak ditu, eta berak esan bezala, "etapa berri bat hasteko ordua iritsi da". Onena opa diogu.

TXIRRINDULARIEN MUGIMENDUAK HASI DIRA: GILEN DEBUTA ETA ARAMENDIAREN AGURRA



Sakanako Mendizaleak taldeak Alzueta eta Urrari omenaldi xumea egingo die.

Arangoitira, Pello Alzueta eta Felix Urrea gogoan

MENDIA Sakanako Mendizaleak taldeak igandean mendi ibilaldia antolatu du Arangoitin, bi kideak gogoan

Sakanako Mendizaleak taldea 1985 urtean jaio zen, duela 34 urte, Sakanako mendi taldeak batu eta elkarrekin hilean behin irteera bat egiteko. "Guztien artean autobusa antolatu ahal izateko sortu zen, Euskal Herriko eta Pirinioetako txoko eta inguru gehiago ezagutzeko. Finean, gure lana Sakanako mendi taldeak koordinatzea da, hilabetero irteera bat prestatu eta autobusa antolatu ahal izateko" aipatu digu taldeko kide Pello Ruiz lakuntzarrak. Mendizaleen koordinazioan horretan, azken urtean zendutako Pello Alzueta eta Felix Urrea izan ziren Irurtzungo Iratxo elkarteko arduradunak.

Pello Alzueta iaz zendu zen, irailaren 23an, eta Felix Urrea aurten, ibeltzaren 3an. Sakanako Mendizaleak taldeak omenaldi xumea egin nahi die taldekide izandako mendigoizaleei. "Iratxoko arduradunak ziren, men-

dizaleak, lagunak. Eta horregatik igandean beraien alde antolatu dugu omenalditxo. Pello Alzueta Ilunberrikoa zen jaiotzez, eta, hortaz, igandean bertarantz joko dugu. Zehazki, Leireko monastegitik abiatuko gara oinez, Arangoitiko gailurreraino (1.355 m.) igotzeko. Han, lore sorta jarriko dugu bien omenez eta aurrekua dantzatzeko diegu" adierazi digu Ruizek. Ondoren, Liedenako La Torre jatetxean bazkaltzera bilduko dira mendizaleak. "Gure mendi ibilaldi berezi honetan parte hartzeko deialdia egiten dugu, Pelloren eta Felixen omenez" gaineratu du Lakuntzako mendizaleak.

Autobusa igandean goizeko 7:00etan aterako da Olaztitik. Ohiko tokietan eman daiteke izena, autobusean tokia egonez gero, herrietako mendi arduradunei aipatuz edo 639 11 76 31 telefonora hots eginez.

BOTXA Irurtzun hirugarrena Elkarteen Arteko jardunaldian

Larunbatean Elkarteen Arteko Botxa Jardunaldia jokatu zen. Guztira 9 bikote aritu ziren, Amaya, Txantrea, Berriozar, Antsoain eta Irurtzun elkartekoak. Amaya elkarteko Cristobalek eta Pacok irabazi zuten txapelketa, Berriozarko Cesarren eta Luisen aurretik. Irurtzun ordezkatu zuten Julen Iragi eta Markel Moreno hirugarrenak sailkatu ziren.



Julen Iragi eta Markel Moreno. IRATXO

Rollerskian Etxarrin eta Lizarrendon barna

ROLLERSKI Bihar, larunbata, XIII. Uharteko Rollerski Saria jokatu da Etxarri Aranatzan. Goizeko 11:00etan proba laburra abiatuko da eta 11:20ean proba luzea, Euskal Herriko Rollerski Ligarako baliagarria dena

Aurreko urteari jarraiki, Uharteko Ipar Eski Taldeak Etxarri Aranazko Udalaren, Sakanako Mankomunitatearen eta hainbat babesleren laguntzarekin antolatuta, bihar, larunbata, XIII. Uharteko Rollerski Saria jokatu da Etxarri Aranatzan.

Rollerskia elurra ez dagoenean eskia lantzeko modalitate gisa sortu zen, entrenatzeko, teknika hartzeko eta eskian ikasteko ere bai. Finean, eski itxura duten gurpildun patinete antzekoak erabiltzen dira, rollerskiak, eta haiek jantzita eta bastoiak eskuan, ipar eskiaren antzeko mugimenduak egiten dira. Baina hasieran entrenamendu hutsa izateko jaio zen modalitatea hazi egin da eta bere entitate propioa hartu du. Horrela, Euskal Herri mailan Rollerski Liga jokatu da, aurten 9 proba dituena, tartean larunbatean Etxarri Aranatzan jokatu den XIII. Uharteko Rollerski Saria.

Etxarrikoa, rollerski klasikoa

Bihar Etxarrin jokatu den XIII. Uharteko Rollerski Sarian rollerski klasikoa lehiatu behar du parte-hartzaileek. Klasikoan rollerskietako gurpilak ez dira atzeraka mugitzen, soilik aurrera, eta eskiatzen bezala doaz uneoro, rollerskiak paralelo dituztela.

XIII. Uharteko Rollerski Saria bi distantzia izanen ditu. Nagusian 14 urtetik gorakoak ariko dira (11 km), eta 14 urtetik behekoentako edo ibilbide laburragoa egin nahi dutenentako 2,75 km-ko proba izanen da.

Dorraukoetxea paretik, Lizarrendon

Goizeko 11:00etan proba laburra hasiko da eta goizeko 11:20ean proba nagusia. Bi lasterketak Etxarri Aranazko igerilekuetako bideko errotonda ondotik abiatuko dira, Dorraukoetxea pareko errotondatik Berroetako bide-



Aurten ibilbidea aldatu dute, ez da Burundabidetik pasako.

ROLLERSKIA ELURRA EZ DAGOENEAN ESKIA LANTZEKO MODALITATE GISA SORTU ZEN

rantz, eta bertan despedituko dira. Bi lasterketetan mass start irteera izanen da; hau da, denak batera aterako dira. 14 urtetik behekoek Berroetako bideko zuzungunear aurrera egingo dute, Lizarrustiko bidegurutzera iritsi baino lehen buelta hartu eta helmugara jotzeko (2,75 km). Ibilbide luzeok, ordea, Berroetako bidetik aurrera egingo dute, Lizarrustiko bidegurutzeara joko dute eta herria pasa eta gero, trenbide gaineko zubian, buelta hartu eta helmugarantz joko dute. Buelta hau bitan egingo dute (11 km). Larunbaterako primerako eguraldia iragarri dute eta rollerskiak hartu eta goiz ederra pasatzera animatu dute antolatzaileek. Parte hartzaileen artean Benar Gartzandia eta Olga Gartzandia etxarriarrak daude.

Eskiatzaileen topaketak

Proba hauek, finean, eskiatzaileen topaketak izaten dira eta giro oso polita sortzen dela aipatu dute antolatzaileek. Bukaeran, 13:00ak aldera, sari banaketa izanen da Etxarri Aranazko plazan. Lasterketa bakoitzeko lehendabiziko hiru emakumeek eta gizonek jasoko dute saria. Horretaz gain, partaideen artean babesleek eskainitako produktuen zozketa egingo da eta auzate ederraz gozatzeko aukera egonen da.

Izena ematea zabalik

Etxarrin jokatu den XIII. Uharteko Rollerski Sarian parte hartzeko izena ematea dohainik da. Larunbatean bertan, goizeko 9:45etik aurrera eman daiteke izena, Etxarri Aranazko udaletxe parean. Aurretik www.uharteski.com web gunean eman zitekeen izena.

Proba bitxia denez, rollerski kirola gertutik ezagutzeko eta goiz polita pasatzeko larunbatean Etxarrira gerturatzeko deia egin dute antolatzaileek. Ez dute euririk iragarriki eta goiz pasa egiteko aukera polita da; jakina, rollerskian ibiltzen diren guztiak proban aritzera animatu dituzte.



Etxarri Aranatz Preferente mailako taldea, Oscar Gomez entrenatzailea eta Xabier Errazkin 2. entrenatzailearekin. ETXARRI

Etxarri Aranatz, atzera ere, Preferenteari eustera

FUTBOLA Preferente mailari eustea lortu zuen iaz Etxarri Aranatz futbol taldeak eta, aurten ere, hori da erronka. Oscar Gomez entrenatzaile berriaren aginduetara, aurten eraldatuta dago 25 jokalariz osatutako taldea

Maidar Betelu ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranatz futbol taldeak iaz preferente mailari eutsi zion, eta aurtengo helburua ere kategoria mantentzea da. Aurreko urteetan entrenatzailea izandako eta aurten juntako kide den Iosu Murgiondorekin bildu gara taldearen egoera aztertzeke.

Oscar Gomez, entrenatzaile berria

Iosu Murgiondok lan itzela egin zuen aurreko urteetan Etxarri entrenatzen, baina aldaketaren beharra ikusi zuen. "Lanarekin okerrago nuen, ezin nuen konpromisoa hartu eta gauzak erdizka egiteko nahiago nuen beste entrenatzaile bat jartzea. Eta uste dut beste aurpegi bat egotearen beharra genuela. Oscar Gomez iruindarra da entrenatzaile berria. Lizarra aldean egon da entrenatzen eta jokalariei moduan Lagunak taldean eta Erriberako talderen batean ere aritu zen. Xabier Errazkin etxarriarra izanen du alboan, bigarren entrenatzaile lanetan adierazi digu.

25 jokalaririk

Plantilan aldaketa nabarmena egon da. Talde zabala du aurten Etxarri, 25 futbolari osatutakoa. "Hiru baja izan genituen, Ivan Gorriz atezainarena eta Luis Goñi kapitainarena, futbola utzi dutelako, eta Mikel Agirrerena, Lagun Arteara joan zelako. Honi lotuta, jubeniletatik 5 jokalaririk izango dira, Eukene Vandenhove atezaina, Iñaki Agirre, Aritz Aristorena, Unai Satrustegi eta Lander Bengoetxea. Andoni Escudero taldera itzuli da, lesio batetik osatu eta gero, eta Xabier Ormazabal eta Joseba Montoia Altsasutik etorri dira. Eta Beñat Yaben, hainbat urte futbola utzita egon ondoren, Etxarrira etorri da jokatzera. "Iaz atezain bat genuen eta aurten hiru" gaineratu du Murgiondok.

Etxarri Aranatzek aspaldi ez zituen horrenbeste jokalaririk. "Entrenamenduetan asistentzia gehiago dago, eta entrenatzailea pozik dago. Plantila majoa da, egon daitezkeen bajak betetzeko.

Bestalde, "iaz gazteen mailako taldea genuen baina aurten ez da osatuko; iaz jubeniletatik tiratzen genuen, eta aurten, taldea ez dagoenez, plantila luzea izatea erabaki dugu eta jubenilak igo" nabarmendu du Murgiondok.

Jubenilen taldea ez egoteak pena ematen dio jokatu gabe geratu diren 8-9 gazteengatik. "Proposatu genien Altsasura edo Lagun Arteara joatea, baina gehienek ez dute nahi; finean, zure herriko taldean aritzea nahi duzu" dio Etxarriko juntakoak.

Lagun Artean mailaz igo denez, atzera ere derbi sakandarra izango dugu Preferente mailan. "Dagoen pike hori polita da denondako. Gu kontentua gaude Preferente bi talde sakandar gaude."

"ETXARRIN HOBETZEKO TARTEA DAGO, BAINA FUTBOL ZELAIAN IKUSTEN ARI GARENA GUSTATZEN ZAIGU"

lako. Altsasu igoko balitz, hobe. Zaila da, zeren hiru taldeek potentziala kentzen diogu elkarri, baina polita litzateke" aipatu du.

"Futbol zelaian ikusten ari garena gustatzen zaigu"

Bost jardunaldi jokatu, Murgiondok Etxarri bide onean ikusten du. "Etxetik kanpo partidak aurrera eramatea pixka bat kostatzen ari zaio taldeari, baina etxean esango nuke oso ondo jokatzen ari direla; hala ere, aseturuan taldeak ez zuen Itaroa Huarteren kontra galtzea merezi izan. Baina horrela da futbola" dio Murgiondok. Taldea egiten ari da oraindik, gazteak eta helduak jokora egokitzen. "Jubeniletatik maila nagusietara saltoa handia da, eta jubenilak gutxina sartu behar dira; pazientzia izan behar dute, sarritan ez dutena. Kosta egiten da taldean sartzea, erritmoa hartzea, elkar ulertzea... beraz, banago hori lortzerakoan taldeak gora egingo duela; hobetzeko tarte dago. Futbol zelaian ikusten ari garena gustatzen zaigu" azpimarratu du Murgiondok.

Helburua preferenteari eustea da. "Urtero berdina esaten dugu. Uste dugu gure kategoria preferentea dela; izan dezakezu urte on bat eta mailaz igo baina gero mantentzea oso zaila da. Preferente mailari eustea ere badu berea; denboraldia luzea da, lesioak egoten dira, jendeak zigorrrak bete behar ditu txartelengatik... zaila izaten da. Gure helburua preferente egotea da, eta ongi pasatzea, jakina. Etxarri dugun giroa oso ona da eta horrek asko balio du" dio.

Giro ona

Oscar Gomez kontentua omen dago. "Taldea gustuko du; guztiak ezagutzen dira, giro ona dago taldean eta hori edozein entrenatzaileari gustatzen zaio" nabarmendu du Murgiondok. Preferente talderik konplikatuenak nor ote diren galdetuta, irribarez hasi da. "Konturatu naiz ez dudala inoiz asmatzen (kar, kar...) baina, hala ere, esango dut. Beti Casadano, egungo liderra, suposatzen dut goian egongo dela. Mailaz jaitsi da, talde ona dute eta uste dut hor ibiliko direla. Gero Doneztebe, Beriain, Lagun Artean... Dena den, badaude taldeak pare bat jokalaririk on dituztenak eta talde onak direnak, baina jokalaririk horiek ez daude

Etxarri Aranatz

2019/2020 Preferente taldea

• **Atezainak:** Eukene Vandenhove, Beñat Yaben eta Amaur Arratibel.

• **Defentsak:** Alain Perkaz, Unai Artieda, Andoni Agirre, Oihan Karasatorre, Mikel Arratibel, Markel Erdozia, Aritz Aristorena, Unai Satrustegi eta Iñaki Agirre.

• **Erdilariak:** Gentza Erdozia, Asier Arratibel, Alain Iriarte, Aitor Saez, Iñigo Arratibel, Xabier Ormazabal, Javi Fernandez, Darling Quezada, Joseba Montoia, Lander Bengoetxea eta Andoni Escudero.

• **Aurrelariak:** Xabier Goikoetxea eta Alain Alberdi.

• **Entrenatzailea:** Oscar Gomez.

• **2. entrenatzailea:** Xabier Errazkin.

nean talde berberak ez direnak. 30 jardunalditan denetatik gerta daiteke" gaineratu du. Zaleen animoak eskertzen ditu. "San Donato zelaian giroa egoten da eta zale asko ere kanpoko partidatara joaten da; taldeak animoak jasotzen ditu" dio.

Etxarri futbol klubaz

Etxarri Aranatzek, preferente taldeaz gain, kadeteetako taldea, haurren mailakoa, kimuen taldeak -biziur eta akaso hirugarren bat sor daiteke- eta benjaminak ditu. "Aurten ez dugu jubenilen taldea, baina iaz ez genuen kadeteena izan eta aurten bai; belunaldien kontua da" azaldu digu. Juntan betikeok jarraitzen dute: Eduardo Elsok lehendakari, Iñaki Elvira lehendakariordea eta diruzaina, Iña Arratibel idazkaria eta Jose Javier Urkia, Jose Guillorme, Fran Gomez, Xabier Errazkin, Koldo Murgiondo eta Iosu Murgiondo bokalak. "Baditugu guraso batzuk asko laguntzen dutenak, eta Karlos, Mikel eta Fandiñori eskerrak eman nahi nizkieke, astero esku bat botatzen dutelako" eskertu du Murgiondok.

Futbol talde bat aurrera ateratzea ez da lan erraza. "Jokalaririk fitzak, aseguruak, arbitroak, txartelengatik ordaindu beharrekoa, desplazamenduak, Federazioaren kuota, mantenua... dena da gastua. Gero eta zailagoa da hori guztia mantentzea" aitortzen du. Baina, futbola gustuko, aurrera darraite.

Folk musikaren hiriburua bihurtuko da Irurtzun

Udazkeneko bezala, duela 27 urte, Folk ametsetan zikloa egingen da Irurtzunen. Lehenengo emanaldia igandean, urriaren 27an, izanen da Suakai talde iruindarrarekin. Azaroaren 3an Mikel Markez musikaria arituko da

IRURTZUN

Folk ametsetan zikloaren 27. edizioa izanen da aurten Irurtzunen. Ia hiru hamarkada hauean folk musikaren estilo ugari pasa dira eta aurten bi proposamen berri izan dira Irurtzunge kultur etxean. Igandean hasiko da folk musika oinarri duen zikloa Suakai Iruñeko musika taldearen *Sustraiak* (*Raices* gaztelaniaz). 19:00etan izanen da emanaldia. Azaroaren 3an, igandea, Mikel Markez abeslariak Biribilean kontzertua eskainiko du, 19:00etan, kultur etxean.

Suakai taldea Claudia Osés eta Ivan Carmona musikariek sortu zuten 2016an. Hainbat proiektu dituzte martxan eta haietako bat Sustraiak da, Irurtzunen eskainiko dutena. Igor Apestegia taldeko perkusionistak azaldu duenez, Sustraiak ikuskizunak Venezuelako haur baten istorioa kontatzen du. Liburu batean irakurtzen du bere aitona Nafarroatik Venezuelara emigratu zuela, eta, beraz, liburua hartu eta Euskal Herrira bidaia egiten du: "Nafarroako txokoak ezagutzen ditu, eta guk txoko horien musika tradizionala jotzen dugu". Musikaren bidez umeak haren "sustraiak" ezagutuko ditu. "Biribilketak, ezpata dantza eta abar euskal musika tradizionalak daude kontzertuaren oinarrian".



Suakai taldearen Sustraiak ikuskizunaren une bat. UTZITAKOA

"Tradizionalak diren arren ez dira guztiz ezagunak". Suakaiko Igor Carmona sortuak dira, beste batzuk berreskuratu dituzte eta moldatu egin dituzte Suakairen estilora. Hortaz, musika tradizionala eta folk musika egiten dute, baina bere estilo propioa du. Taldea oso anitza dela esan du Arostegik, izan ere, Sustraiak ikuskizun bat besterik ez da. "Honetan gure musikaren jatorria ezagutu daiteke".

Txistua, eskusoinua, dultzaina, biolontxelo, biolina eta perkusioa batzen dira folk ikuskizun

honetan. Aitor Urquiza (txistua eta txirula), Ivan Carmona (biolontxelo eta gaita), Iñaki Deiguez (eskusoinua), Claudia Osés (biolina) eta Igor Arostegi (perkusioa) dira Sustraiak ikuskizuneko musikariak. Itziar Perez de Ziriza narratzailea izango da.

Antzerkia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna da Sustraiak, baina Irurtzunen kontzertu bertsioa egingen dute. "Narratzaile bat izango da istorioa kontatzen, eta guk musika jarriko dugu". Hortaz, kontzertu baten "formatua" izango du.



Xabier Artieda aktore etxarriarra. ARTXIBOA

"Ipuin kontalari zarenean, ipuina zeureganatzen duzu"

Xabier Artieda etxarriarra ipuin kontalaria izanen da. Ipuinekin "entretentzea" da aktorearen helburua

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Xabier Artieda aktore etxarriarra ipuin kontalaria izanen da Altsasun gaur, ostirala, 17:00etan, liburutegian. Etxarri Aranatz, eta urriaren 29an, asteartean, 17:30ean, liburutegian.

Zertan desberdintzen da aktore lana eta ipuin kontalariarena?

Nik biak uztartzen ditut. Aktore lana eta ipuin kontaketa batera egiten ditut. Ipuin kontaketa ez du hainbeste prestakuntza behar, ez delako agertoki batean egiten, liburutegietan egiten da. Baina ni beti sartzen naiz antzerkian. Oso dinamikoak dira eta hainbat pertsonai egiten ditut. Izerditan bukatzen dut.

Ipuinak zuk sortzen dituzu?

Ipuin asko bilatu, irakurri eta hautatu behar dituzu, eta saioa prestatzen ari zarenean zure ukitua ematen diozu. Ipuina zeureganatzen duzu. Ez naiz gai batean zentratzen. Entretenga-

ria izatea nahi dut, baina elkar-tasuna, lagunak, konpartitzea... jorratzen dute. Mezu bat izan ohi dute.

Zenbat pertsonai egiten dituzu?

Ipuin bakoitzeko bost edo sei pertsonai. Baina teknika daukazuenean erraza da batetik bestera pasatzea. Dibertigarria da.

Publikoa desberdina da?

Jolasak proposatu behar dituzu, historian parte hartzeko eskatu behar diezu... Ipuinak konexio bat egoteko prestatzen ditut. Beraz, oso adierazgarriak dira. Ez dira ipuin klasikoak eserita entzuteko. Izan ere, haurrak oso adierazgarriak dira eta zerbait ez zaienean gustatzen edo asko gustatzen zaienean, adierazten dute. Asko mugitzen dira ere... Beraz, radarrarekin egon behar duzu saio guztia.

Nola prestatzen zara?

Antzerkian bezala. Bakoitzak gure trikimailuak ditugu.

Sorginen gauean Akelarrea egingen du Dantzarimak

Dantza konpainiak bere azken ikuskizuna egingen du urriaren 31n, ostegunean, 22:30ean, Burunda frontoian

ALTSASU

Akelarrearen sua berpizten ikuskizuna mustu zuen Altsasuko Dantzarima dantza konpainiak Olaztin, "arrakastarekin", eta orain etxean egingen dute urriaren 31n, 22:30ean, Burunda frontoian.

Dantza konpainiaren lehenengo kale ikuskizun luzea da, nahiz eta eguraldiagatik Olaztiko frontoian mustu behar izan zuten. Dantzaren bidez Dantzarimak gaur egun sorginen inguruko irudi "txarra" arbuatu nahi du,

Irantzu Gonzalez Azpiroz konpainiaren zuzendariak azaldu bezala. Hortaz, garai bateko ofizioetatik hasten dira, Akelarrearen "indarrarekin" amaitzeko.

Akelarrearen sua berpizten ikuskizuna diziplina anitza da, izan ere, antzerkia eta dantza uztartzen ditu, Dantzarima-ko "sorginekin" batera hainbat pertsonai "ezagun" agertzen dira ere: momotxorroak eta Akerra. Gainera, Akerra Milakolore elkarteko kide den Josu Vilariño da.



Akelarrearen sua berpizten ikuskizunaren une bat. FERNANDO MORENO

Opera entzuten ez dutenendako opera

Yllana konpainia ospetsuaren The Opera Locos ikuskizuna izanen da bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Antzerkiaren eta operaren arteko ikuskizun bat da, Enrique Sanchez ikuskizunaren baritonoak azaldu bezala

ALTSASU

Umorea da Yllana konpainiaren bereizgarritasunetako bat. Baina "ikuskizunaren kalitatean" eragina ez duen umorea da, Enrique Sanchez The Opera Locos ikuskizunaren baritonoak azaldu bezala. Bihar, larunbata, 19:30ean, izanen dira opera abeslari eroak Iortia kultur gunean. Dagoeneko sarrerak agortu dira.

The Opera Locos sortu zutenean ez zuten horren arrakasta espero, azaldu du Enrique Sanchez The Opera Locos ikuskizuneko baritonoak. Antzerkia eta opera uztartzen dituen ikuskizuna da. "Opera zatiekin sortutako antzerkia da". Hortaz, opera zatiek bost pertsonaien "emozioak eta istorioak" kontatzen dituzte. "Ez da musikal bat, berez ez ditu musikal baten ohiko ezaugarriak betetzen". Operan oinarritzen den antzezlan bat da.

Bost dira pertsonaiak eta "Frankenstein moderno" bat dela azaldu du Sanchezek. "Operarekin



The Opera Locos ikuskizuna. UTZITAKOA

batera beste hainbat estilo agertzen dira ere, esaterako, rock, pop eta soul, eta konturatzen zara ez dagoela horrenbeste aldea operatik gaur egungo estiloetara". Opera garai bateko "pop musika" zela esan du aktoreak. Gainera,

opera zatiak "oso ezagunak" dira. "Jendeak uste du ez dakiela operari buruz, baina pieza bat entzuten dutenean konturatzen dira ezagutzen dutela". The Opera Locos opera ezagutzen ez dutenendako "gerturapen" bat izan daiteke. Are gehiago, aktoreak esan duenez "izan dira ikusleak gero opera tradizionala ikustera joan direnak".

Prozesua

Abeslari lirikoak dira The Opera Locos-eko aktoreak eta Espainiako Operan eta zarzueletan parte hartu izan dute. Baina "antzerkian ere gauzak egin ditugu", eta, beraz, profil bikoitza badute. Yllanarekin lan egitea oso "aberasgarria" dela esan du Sanchezek. "Opera zatietatik abiatu ginen, eta inprobisazioen bidez sortu genuen ikuskizuna". Hortaz, pertsonaiak haiek sortzen dituzte eta bereak egiten dituzte. Oso ongi pasatzen dute antzezlan egiten, "eta nabaritzen da".

Haurrendako, gazteendako eta helduendako antzerki eskaintza

Irurtzunen, Etxarri Aranatzan eta Olatzagutian hainbat antzezlan izanen dira asteburu honetan

SAKANA

Hotza hasi da eta asteburuetako arratsaldeak pasatzeko toki ezin hobea dira kultur etxeak. Hortaz, hainbat antzezlan prestatu dituzte Sakanako hainbat herritan. Irurtzungo kultur etxean, gaur, ostirala, 20:30ean, Antzerki zirkloaren azken proposamena izanen da: Yllana konpainiaren Improclan taldearen *Improvisatio* antzezlan.

Gaur ere Sakanako beste puntan, Olaztikoko kultur etxean, *Conchita Tou tu vidente medium y la de todos tus muertos* antzez-

lana izanen da, 22:30ean. Euskal Herriko medium ezaguna izanen da Olaztin eta bi pertsonai berezien arazoak konpontzen saiatuko da. Igandean familiarteko dantza ikuskizuna izanen da Olaztin: Markeliñe konpainiaren Euria ikuskizuna. 17:00etan izanen da emanaldia.

Etxarri Aranatzan *Etxe txiki* haur errefuxiatuen istorioa kontatzen duen antzezlan izanen da, 17:30ean, kultur etxean. Eva Azpilikueta da protagonistetako bat, eta Feten saria irabazi zuen interpretazio honengatik.

Orritz-en urteurrena elkarrezkin ospatzeko deia

Orritz Irurtzungo dantza taldeak aurten 30. urteurrena ospatuko du eta azaroaren 30ean jaialdi handia egingo dute. Ekimen horretan hiru hamarkada hauean Orritz-etik pasa den jendea egotea nahi dute, beraz, taldeetik pasa den jende guztiari gonbidapena luzatzen diote.

Orritzeko kide izan den edonor dago gonbidatuta, bai dantzatzera bai ondoren eginen den afarira ere. Beraz, azaroaren 30ean egingo duten ekitaldian parte hartu nahi dutenek Orritzeko kideekin harremanetan jarri behar dira 651 577 990 zenbakian edo orritz.junta@gmail.com helbide elektronikoan.



BAZTERRETIK

JUAN KAR LOPEZ-MUGARTZA

Garai txarrak lirikarako

Udazkena denez gero, zutabe hau basoaren koloreen ñabardura berriei buruz idazteko asmoa nuen, Guaixeko adiskide guztiakin hostoen erorketaren edertasunak sortzen didan estasi poetikoa partekatzeke. Baina haize gaizto batek orbel guztia airatu eta, berriz ere, kartzelen ateen ondora eramán gaitu. Poesiak nekez bilatzen du leku bat gure egungo gizarte jipoitu honetan.

Biolentziarik gabe edozein gaiez hitz egin zitekeela zioten. Justiziaren aurrean denok berdina ginela esaten zuten. Mendekurik ez zela egongo. Onartu behar genituen gure hutsak eta barkatuak izango gineteke, gure zordunei barkatzen dizkiegunez gero.

Gizarte libre batean bizi omen gara, nahi duguna pentsatzeko libre gara. Elizak, adibidez, pentsamenduen bidez pekatu egin daitekeela dio (hitzen, ekintzen eta omisioen bidez ere bai; hau da, egin behar dena ez egiteagatik). Baina gu,

demokrazia batean bizi garenok, pentsamenduengatik ez gara jazarriak izaten, ez da pekatu, baldin eta pentsamendu horiek gauzatu nahi ez baditugu behintzat, zeren eta, orduan bai, izugarritzko zartakoa jasan dezakegu legeak agintzen duen indar osoarekin.

Venezuelako politikoko preso guztiak, preso politikokoak dira ez bairik gabe. Hango politikoen atxiloteta agintari gaiztoaren bortizkeriaren eta poterearen indarraren erabilera maltzurtzat hartzen dugu. Hemen, berriz, preso politikorik ez dago, politikoko presoak baizik. Horiek preso politikokoak direla pentsatzea ez da delitua, preso politikoko horien alde jokatzeko ez badugu. Gazte batzuk bidegabeki kartzelatuak eta gaizki epaituak izan direla pentsatzea ez da delitua, haien alde ekitea, berriz, bai. Justizia ez dela justizia pentsatzea ez da delitua, Justizia benetan justizia izan dadin egiturak aldatu nahi izatea, bai.

Halere, gogora dezagun: omisioagatik ere pekatu egin daiteke. Jesukristo bera kartzelatu zeudenak bisitatzea joan zen, ez zituen ahaztu inolaz ere ez. Ez dezagun gure omisioagatik pekatu egin, eta pentsaketan librea dena, egin dezagun libre hitzetan eta ekintzetan ere bai.



UTZITAKOA

'Etxe honetan' aurkeztu dute

Etxepare sarietako irabazlea da 'Etxe honetan' album ilustratua. Asier Iturralde ilustratzailea eta Aintzane Usandizaga dira egileak, eta familia baten istorioa kontatzen du. "Hitzak eta ilustrazioak" oso ongi uztartu dituztela esan du epaimahaiak. Nafarroako 22 toki erakundeek antolatzen dute Etxepare saria, tartean Sakanako Mankomunitateak.



Artebide elkarteak antolatutako VIII. Arte Azoka mustu zuten ostiralean.

Altsasuko Auziaren hamaika ikuspegi eta proposamen artistiko

Artebide elkarteak antolatzen duen Altsasuko VIII. Arte Azoka mustu zuten ostiralean. Lehenengo aldiz azoka gai baten inguruan izan da: Altsasuko Auzia. Artistek auziari buruzko interpretazio pertsonalak islatu dituzte artelanetan

ALTSASU

Margolanak, eskulturak, instalazioak, eskultura, ikus-entzunezkoak... mota guzietako artelanak daude ikusgai Altsasuko VIII. Arte Azokan. Urtero bezala Sakanako artisten erakusleihu bihurtu da Iortia kultur guneko erakusketa aretoa, eta horrela izaten jarraituko du azaroaren 2ra arte. Zortzigarren edizioaren erakusketa mustu zuten, eta aurten berezitasun bat du; lehenengo aldiz gai bat jarri dute Arte Azokan erakutsi dituzten artelanendako. Altsasuko Auziaren inguruko "hausnarketa plastikoa" egin nahi izan dute artistek aurten, Sagri Mauleon eta Manolita Thunders Artebide elkarteak kideek azaldu duten bezala.

Lehenengo aldia da Arte Azokari gai bat jartzen diotela. Erabakia "zaila" izan zen, baina Altsasuko ferietako gertaerak

izan zirela hiru urte betetzen ziren, eta orain arte "elkarte plastiko bezala erantzun bat" ez zuten eman, eta aurten Altsasuko ferien harira antolatzen duten erakusketa auziari eskaintzea erabaki zuten. Eskaini baino, artistek "gure modura bizitzen ari garen errealtate hau" islatzeko gogoia zuten, Mauleonek azaldu bezala.

Orain arte artistek nahi zuten artelana aurkezten zuten. Ez zuten erakusketarako propio sortutako lanik aurkeztu behar. Hortaz, gai bat jartzea "erabaki zaila" izan zen. Izan ere, gai bati

AZAROAREN 2RA ARTE EGONEN DA IKUSGAI VIII. ARTE AZOKA, IORTIA KULTUR GUNEAN

buruz lan egitea "gogorra eta zaila" dela azaldu du Thundersek: "Gai horretan sartzeko ahalegin berezia egin behar duzu". Are "zailagoa" da Altsasuko Auzia bezalako gai batekin: "barruan duzuna atera behar duzu, berriz barrura sartu eta berriz atera artelana sortuz". Hortaz, lana "handiagoa" eta "sakonagoa" egin behar izan dute.

Sakanako eta gonbidatutako artisten lan "gogorak" erantzun "interesagarria eta aberatsa" eman du. Nahiz eta gai bakar baten inguruan izan mota, estilo eta teknika guzietako artelanak ikus daitezkeen Arte Azokan. "Artista bakoitzak badu gai berdina plastikoki islatzeko modua". Gaia zabalagoa dela esan du Mauleonek, "eta modu askotara" interpretatu daiteke. Horregatik proposamen desberdinak atera direla gaineratu du.

Artea beste hizkuntza bat da, beste lengoaia bat. Eta artistek plastikoki erakutsi nahi izan dute "istorio hau" nola bizi duten: elkartasuna, askatasuna, kartzela, justizia eta injustizia... auziaren ikuspegi desberdinak irudikatu dituzte artistek. Gainera, modu desberdinetan adierazi dute ere barruan zutena. "Bakoitzak egoera nola bizi duen islatu du eta toki desberdinetatik landu daiteke". Hortaz, artelan batzuk "figuratiiboak" dira, eta argi ikusten da gaia. Beste batzuk "abstraktuagoak" dira, eta horrek "aberastasuna" ematen dio erakusketari.

"Bakoitzak bere modura uleretzen ditu artelanak. Interpretatzen dira. Nik irudikatu dezaket gauza bat, baina gero beste pertsona batek ikusten du eta beste interpretazio bat egiten du.

Eta hori ere aberasgarria da", esan du Mauleonek. Batzuetan ikusleak artistek "pentsatu ere ez dituzten" gauzak ikusten ditu. "Eta hori polita da eztabaidak eta elkarrizketak sortzen direlako". Galderak sortzen dira, eta hori "garrantzitsua" da.

Arte Azoka, urteekin, Altsasu ferietako "beste ekimen bat" bihurtu da. "Duela hiru urte inguru konturatu ginen jende asko etortzen zela, ez zela soilik eguraldi txarra egiten zuelako". Jendeak "ibilbidearen barruan" sartu du azoka: "Oso polita da".

Arte Azokarendako gai bat aukeratzea ez da aurtengo berezitasun bakarra izan. Azokaren aurretik arte laborategiak egin dituzte gaia lantzeko. Helena Santanok eta Mauleonek tailerreko ondorioak aurkeztu dituzte erakusketan.

ERLAUNTZA

AZAROAREN 9A
LARUNBATA, 19:30EAN

PREZIOA: AURRETIK: 10 € · EGUNEAN BERTAN: 12 €
BERRIALAGUNEK: AURRETIK: 8 € · EGUNEAN BERTAN: 10 €

ANTOLATZAILEA:
BERRIA, SAKANAKO MANKOMUNITATEA ETA ALTSASUKO UDALA

"Bertako tradizioak goraipatu behar ditugu"

Azken urteetan indarrarekin sartu da AEBtik datorren Halloween ospakizuna. Hala ere, Euskal Herrian ospatzen omen zen antzeko festa bat: Gau beltza. Irurtzunen eguna ospatzeko 'Ibilaldi beltza' egingo dute. Txape Iriarte antolatzaileetako bat da

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

1 Zergatik antolatu duzue ibilaldi beltza?

Azken urteetan urriaren 31n sortu den kaleko giro hori, giro euskaldun batean bihurtzeko. Azken hamabost urteetan ikusi dugu Irurtzunen, eta are gehiago hirietan, Halloween festa bazter guztietan dagoela eta haurrak izen horrekin gelditzen dira. Gau beltza bezala ezagutu behar dute. Halloween-en kontra ez da ezer egin, nire ustez. Baina bilatu behar da egokitzeko modua. Hortaz, egun hori ahalik eta euskaldunena egitea eta gure ohiturak mantentzea.

2 Zertan oinarritu zarete Gau beltza ospatzeko?

Egiten denaren moldaketa bat egingo dugu. Haurren festa bat da, nahiz eta hirietan izugarriko festak antolatzen diren, eta haur bati ezin diozu esan ezin duela mozerro bat jarri eta trapu zaharrak jarri behar dituela, lehen egiten zen bezala.

3 Baina Irurtzunen ospatzen zen?

Hemen denetarik entzun dut: eskean ibiltzen zirela, kalabazak eta arbiak husten zirela eta bide



Isikidiko pertsonaia mitologikoak 'Ibilbide beltza'-n agertuko dira. ARTXIBOA

bazterretan jartzen zirela, gauez pasatzen zenari beldurra sartzen zitzaie... Kontatzen zuten hildakoen eta bizien arteko atek irekitzen ziren, eta hildakoak agertzen ziren. Hortik datoz misterio eta beldur guztiak.

4 'Ibilbide beltza' antolatu duzue Gau beltza ospatzeko. Zer da?

Menditik ibilbide bat antolatu dugu. Ordu erdiko ibilbidea izango da. Bi ipuin kontalari egongo dira: Izaskun Mujika eta Yurena Perez, eta geldialdiak egingo

dira. Geldialdi horietan pertsonai mitologikoak agertuko dira, baina ez dut esango zeintzuk, sorpresa izango da. Plazaolako iturrian, 18:30ean, hasiko da. Bi talde egongo dira: hamar urtetik gorakoak bakarrik joango dira eta beherakoak gurasoekin.

5 Beldurrezko edo misteriozko ipuinak izango dira?

Egun horretako misterioa kontuan hartuz, bai. Euskal mitologia ere landuko da. Bi gauzak uztartuko dituzte.

6 Basoan egingo duzue, gero herrira mugituko zarete?

Ez, printzipioz mendian egingo dugu. Herri ondoan dagoen larre bati buelta bat emango diogu eta Plazaolako tuneletik ere pasako gara. Misterioa izan daiteke tunela. Egiten dugun lehenengo aldia da. Eguraldi txarra egiten badu B plana egin beharko dugu. Hortaz, Irurtzunen dagoen karpán, Barazki gunean, prestatu beharko dugu festa.

7 Taldeak nolakoak izango dira?

Jendearen arabera izango da. Ez dakigu zenbat jende etorriko den, horregatik Pikuxarren gonbidapenak hartu behar dira urriaren 28a, astelehena, baino lehen. Printzipioz talde bakoitza ipuin kontalari batekin joango da. Biek antzeko ipuinak kontatuko dituzte, bakoitzak bere modura. Gero pertsonaiak aterako dira. Misterioa eta beldurra hor izango dira; ez da ezer gertatuko, baina sorpresak izango dira.

8 Ez da lehenengo urtea Gau beltza ospatzen duzuela.

Hiru urte daramatzagu kontuhoni bueltak ematen. Zer egin

egun honekin. Duela hiru urte *Halloween euskal festa al da?* hitzaldia antolatu genuen. Ondorioztatu genuen Halloween-en kontra haurren festa dela eta ezin dugula horren kontra ezer egin. Ondorioz, festa hori moldatu behar dugu. Zer egin? Zaila da. Aurreko urtean ipuin kontalaria antolatu genuen eta jende asko joan zen, baina gero hortik atera eta haurrak *truco o trato* delakoan eskean joaten dira. Aurten 'Ibilbide beltza' egitea bururatu zaigu.

9 Beraz, Halloween gero eta gehiago ospatzen zen Irurtzunen eta horri aurre egin nahi diozue?

Bai. Batez ere 19:00ak aldera etxeetatik *truco o trato* delakoarekin joaten dira. Hemengo esatera izango balitz, motibatzen zaitu. Haurren artean transmititzen dute gaztelaniazko formula eta gurasoek ez diete ezer esaten. Buelta eman behar zaio eta Gau beltza ezagutu behar dute. Haurrak haurrak dira eta ezin zaie derrigortu, beraz, nik uste ibilbidea motibagarria izango dela.

10 Haurrak mozerroturik joan behar dira?

Haurrei mozerrotzea eta aurpegi margotzea izugarri gustatzen zaie, baita festa ere. Haurrak mozerrotu daitezke, trapu zaharrekin, lehen bezala joan daitezke edo mozerroturik gabe.

11 Pixkanaka Gau beltzaren tradizioa sortzen ari zarete.

Pertsona batzuen artean bai. Zerbait motibagarria egiten badugu, jendea animatuko da. Gu txienez haurrek Gau beltza bezala ezagutzea, hori da helburua.

BAZKIDE SARITUAK

- Peio Goietxe Sardinas (Burlata)
- Ergoienako udala (Lizarraga)
- Sara Zufiaurre Mendoza (Altsasu)
- Manu Gomez Genua (Etxarri Aranatz)

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA
ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

